

euskadi lagunkoia Sustraietatik



2018ko abendua

Azkoitia Lagunkoia proiektua *Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Euskadi Lagunkoia* ekimenaren esparruan sustatu da.

Laguntza teknikoa:

Matia Instituto



MATIA
INSTITUTO



AURKIBIDEA

EDUKIA

1. EUSKADI LAGUNKOIA SUSTRAIETATIK	5
1.1. PROIEKTUA OMEren ESPARRUAN ETA ZAHARTZE AKTIBOAREN PARADIGMAREN PEAN	7
1.2. UDALERRIETAKO LAN-METODOLOGIA.....	9
2. DIAGNOSTIKOA	13
2.1. BIGARREN MAILAKO ITURRIEN AZTERKETA	14
2.1.1. DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK	14
2.1.2. ERAGILEAK	17
2.2. EMAITZEN AZTERKETA:	18
LAGUNKOITASUNARI BURUZKO GALDERA-SORTA ETA herri-topaketak	18
2.2.1. METODOLOGIA.....	18
2.2.1.1. LAGUNKOITASUNARI BURUZKO GALDERA-SORTA: fitXa tEKniKOa	19
2.2.1.2. HERRI-TOPAKETAK: OSAERA	20
2.2.3. DIAGNOSTIKOAK: EMAITZAK.....	22
ALDERDI OROKORRAK	22
1. AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK	25
2. GARRAIOA	35
3. ETXEBIZITZA	40
4. PARTAIDETZA ETA GIZARTE-SAREA.....	43
5. HERRI-PARTAIDETZA ETA ENPLEGUA.....	49
6. ERRESPETUA ETA GIZARTERATZEA	52

7. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA	54
8. GIZARTE- ETA OSASUN-ZERBITZUAK.....	56
9. GOGOBETETASUNA.....	58
BIBLIOGRAFIA.....	60

LABURPEN-TAULA: ALDERDI POSITIBOAK ETA NEGATIBOAK, ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK
.....**¡Error! Marcador no definido.**



1. EUSKADI LAGUNKOIA SUSTRAIETATIK

Azkoitia Lagunkoia programa *Euskadi Lagunkoia Sustraietatik* sareari atxikita dago. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak jarri zuen martxan sarea, eta herritarren eta sektore publiko, pribatu eta sozialaren partaidetza sustatzen du Euskal Herrian lagunkoitasunaren mugimendua garatzeko, adinekoei bizimodua erraztuko dieten inguruneak sor daitezzen.

Proiektua Osasunaren Mundu Erakundeak martxan jarritako «Age-friendly Environments Programme» ekimenean oinarrituta dago.

Zer da?

«Adinekoekin lagunkoia den herria zahartze aktiboa sustatzen duen hiri-ingurune integratzailea eta irisgarria da.»

Helburu espezifikoak:

- Euskadiko herri eta hirietako bizitzan adinekoek ongizate-sortzaile gisa duten ahalmena aprobetxatzea.
- Komunitatean parte hartzeko prozesuak sortzea eta sustatzea.
- Euskadin lagunkoitasun-ekimenen sarea sortzea.
- Inguruneetan aldaketak ahalbidetzea, bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetze aldera.

Munduko herrialde guztietan biztanleen zahartzeak sortzen dituen erronkei bi ikuspegi bateragarritatik hel dakieke: aberastasuna sortzeko aukera gisa, eta zahartutako gizarte baten ongizateak dakarren gastuagatiko kezka gisa. Bi ikuspegi horietan, lehenetsua ematen zaio prozesua aztertzeari, ikertzeari eta esku hartzeari aukera sozioekonomikoak sortzeko.

Euskadin, horrek are garrantzi handiagoa du kontuan hartzen badugu EAEko bizi-itxaropen handia. Adinekoen taldeak (kasu gehienetan lan-merkatutik kanpo dagoenak) duen ahalmen handiak gizartearen ongizatea areagotu behar du, batez ere krisialdian. Adinekoek jada sortzen dute ongizatea: seme-alabei laguntzen diete bilobak zaintzen, ekonomikoki laguntzen diote familiari, langabezia-tasa handiak dakartzan gizarte-arazoak arindu eta sistema babesten dute, edo boluntarioen elkarrekin eta erakundeetan parte hartzen dute. Krisialdian beste inoiz baino gehiago, adinekoak gizarte-konpromisora ekarri behar ditugu, ongizatearen gizartea mantentzeko eta eraikitzeko erantzunkidetasunaren bidez.



Donostia izan zen OMEk martxan jarritako ekimenean parte hartu zuen Euskadiko lehenengo hiria. Ondoren, Bilbok eta Gasteizek egin zuten bat. Jaurlaritzak euskal lurralde osora zabaldu nahi du mugimendua, eta, horretarako, landaguneko udalerrri eta herri txikiei lagunduko die ekimenarekin bat egiten.

Bizimodu aktiboa eta autonomia luzatu ahal izateko, hein handi batean, hiri-diseinuak lagunkoia izan behar du, eta etxeke inguruneek, berriz, seguruak eta egokiak. Inguruneetan esku hartzea da egungo sektore estrategikoetako bat, osasunarenarekin batera.

Pertsonekin lagunkoia den udalerrriak berrantolatu egiten ditu egiturak eta zerbitzuak, pertsona guztiei kalitate, segurtasun eta erosotasun handiena eskaintzeko, haien gaitasuna edozein dela ere; horrela, gizarte-bizitzako arlo guztietan parte har dezaten sustatuko du. Nabarmendu behar da udalerrri lagunkoia adin guztietako pertsonentzat diseinatuta dagoela, eta ez bakarrik adinekoentzat hobekuntzak lortzera bideratuta. Horrela egituratutako udalerrriak eskaintzen dituen abantailak eta onurez biztanle guztiek gozaten dute:

- Oztoporik gabeko eraikinek eta kaleek dibertsitate funtzionala duten pertsonen mugikortasuna eta independentzia hobetzen dute, nola gazteak hala adinekoak izan.
- Auzoak ingurune seguru bihurtuz gero, haurrak, gazteak eta adinekoak segurtasunez aterako dira kalera, eta modu aktiboan parte hartuko dute era guztietako ekimenean, nola sozialak hala aisialdikoak.
- Familiek presio txikiagoa jasaten dute adin handieneko kideek komunitatearen laguntza eta laguntza publikoa eta pribatua jasotzen dutenean, baita behar dituzten osasun-zerbitzuak ere.
- Komunitate osoari egiten dio mesede adinekoek herriko bizitzan parte hartzeak.
- Herriko ekonomiarentzat ere mesedegarria da adinekoek hainbat arlotan modu aktiboan parte hartzea.

Proiektu honen helburua da herritarren ekimenei eta espazio publikoari lotutako jardunbideek sortzen dituzten gizarte-berrikuntzako prozesuen transferentziak sustatzea, eta, horretarako, herritarren gizarte-partaidetza, gizarte-erantzunkidetasuna, belaunaldien arteko harremanak eta herritarren eta administrazioaren arteko komunikazioa bultzatzen ditu, pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzeko.

Horrek guztiak sortzen dituen gizarte-eragina eta onurak biderkatu egingo dira herritarren, administrazioaren, sektore pribatuaren eta gizarte-eragileen zabalkunde-, onarpen- eta inplikazio-mailaren arabera.


1.1. Proiektua OMEren esparruan eta zahartze aktiboaren paradigmen pean

Inguruneak adinekoekin lagunkoia izateko mugimendua Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) jarri zuen martxan 2005ean, Rio de Janeiroko Gerontologiako Munduko XVIII. Biltzarrean, *Age-Friendly Cities* izenaren pean. Ekimenaren ideologoa Alexandre Kalache doktorea izan zen, garai hartan OMEren *Ageing and Life Course* programaren zuzendari zena, eta, programan martxan jartzeko, munduko biztanle modernoek bi joera bereizgarritan oinarritu zen: zahartze demografikoa eta urbanizazio-prozesua. Gero eta gizarte zahartuagoetan bizi gara, eta gero eta ingurune urbanizatuagoetan, hiri handietan. Ekimen hau bi joera horiei erantzuna emateko ahaleginetik sortu da, adin handieneko biztanleek duten ahalmenari ahalik eta probetxu handiena ateratzeko asmoz. Herritarren partaidetza-prozesu handi bat sustatu nahi da, eta prozesu horretan adinekoak izatea protagonista, ongizate-sortzaile gisa.

Ekimena zahartze aktiboaren paradigmen azpian dagoen teorian oinarrituta dago. Paradigma hori 2002an definitu zen (Zahartzearen Munduko II. Biltzarra), «Zahartze aktiboa, esparru politikoa» dokumentuan. «Zahartze aktiboa prozesu bat da; haren bidez, osasun-, partaidetza- eta segurtasun-aukerak optimizatzen dira, bizi-kalitatea hobetzeko, pertsonak zahartu ahala» (*Active Ageing: A Policy Framework. Geneva, OME, 2002*).

Adinekoekin lagunkoia diren hirietan, politikak, zerbitzuek, inguruneek eta egiturek pertsonen zahartze aktiboa sustatzen eta ahalbidetzen dute. «Adinekoak kontuan hartzen dituzten ingurune fisikoak izan daitezke independentziaren eta dependentziaren arteko aldea» (OME, 2002).

Zahartze-prozesua: adinaren eta gaitasun funtzionalaren arteko lotura





Iturria: Kalache eta Kickbusch, 1997

Gaitasun funtzionala handitu egiten da haurtzaroan, helduaro goiztiarrean lortzen du garapen gorena, eta txikitu egiten da zahartze-prozesuak aurrera egin ahala. Murrizte-tasa hori hainbat faktorek baldintzatzen dute: bizitzeko era, gizartea, ekonomia eta ingurunea. Erabaki indibidualek eta politika publikoek (besteak beste, adinarekin lagunkoia diren inguruneak sustatzea) eragina izan dezakete beherakada horren abiaduran; areago, aldatu ere egiten dute edonoiz zenbait kasutan. «Ingurune lagunkoiek bizimodu independentea, zahartze aktiboa eta autonomia pertsonala indartzen dituzte, osasun-, partaidetza- eta segurtasun-aukerak optimizatuta, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko» (OME, 2007).

Zahartze aktiboak aukera ematen du pertsonen zahartze-prozesuaren kalitatea hobetzeko. Zalantzarik gabe, zahartze aktiboak eragin zuzena du banakoen gaitasun funtzionala mantentzen, horrek dakartzan abantaila guztiekin, hainbat esparrutan: pertsonala, familiakoa edo soziala.

Paradigma hau, hain handia izanik, nolabait hutsalduz joan da teorizatu zenetik (hots, 2002an), eta adinekoei zuzenduta dauden eta ikuspegi «positiboa» eta «aktibista» duten jardueri lotuta egon da. Horrela, pixkanaka, adinekoak ikusle, kontsumitzaile edo erabiltzaile huts gisa ikusten dituzten programei lotuta egotera pasatu da, eta alde batera utzi da jardueretan eta erabakiak hartzen parte hartzeko inplikazioari lotutako alderdia.

Lagunkoitasun-programan, adinekoak dira prozesuaren protagonistak. Prozesu horrek ongizatea sortuko du, eta eragina izango du gure eguneroko bizitzan. Programan, modu arrazionalago batean leheneratu behar dira gune publikoak, herritarren arteko harremanak, zaintzen transferentziak... Hau da, udalerriko eguneroko bizimodua guztiontzat gizatiarragoa eta pozgarriagoa bihurtzen duten gauza txiki horiek guztiak.

Programari hasiera emateko, 33 pilotu egin ziren, mundu osoko hirien lagunkoitasun-maila neurtzeko, besteak beste, New York, Rio de Janeiro, Tokio, Istanbul eta Nairobi. Ikerketa horretatik abiatuta, gida bat prestatu zen, hots, *Gida: adinekoekin lagunkoia diren hiri globalak*, 2007ko urriaren 1ean argitaratua, Adinekoen Nazioarteko Egunaren harira. Gida horrek, *Vancouverreko protokoloarekin* batera, oinarri metodologiko gisa balio izan du munduko beste hiri batzuetan lehenengo diagnostiko-fasea garatzeko.


Orduz geroztik, *Hiri eta Komunitate Lagunkoien Sare Globala* osatuz joan da mundu osoan, OMEk koordinatuta. Estatuan, IMSERSOK lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuen erakunde horrekin, *Adinekoekin Lagunkoia diren Hiri eta Komunitateen Iberoamerikako Sarea* sortzeko eta, sare horretan, Espainiako eta Latinoamerikako ekimen guztiak bateratzeko. *Hiri eta Komunitate*

Lagunkoiei buruzko Nazioarteko I. Biltzarrean (Irlanda, 2011ko iraila), mundu osoko 38 udalerritako alkateek eta tokiko agintariek Dublingo Adierazpena sinatu zuten. Adierazpen horretan biltzen dira ekimenari atxikitzen zaizkion udalerriek beren gain hartzen dituzten balioak eta printzipioak. Urte berean, ekainean, beste 40 hirik sinatu zuten konpromiso hori *AHA Conference* biltzarrean. 2013ko irailean, *Hiri eta Komunitate Lagunkoien Nazioarteko II. Biltzarra* egin zen Quebecen, «Gure komunitatean elkarrekin bizitzen eta zahartzen» lelopean.

Zalantzarik gabe, programa martxan jarri zenetik egin dituen 13 urteotan, aparteko aurrerapena izan du. OMEren laguntzak, nazioarteko erreferentzia-erakunde gisa, eta ekimenarekin bat egin duten udalerrri eta ingurune guztienak (2018ko abenduan, guztira, 700), bai nazioartekoenak, bai Estatukoenak, aurreikuspen guztiak gainditu ditu, eta apustu handia izan da era guztietako inguruneetara egokitzen den programa moldaeraz eta malgu baten alde. Programa horren helburu komuna da gizarte-berrikuntzako eta -erantzukidetasuneko herri-mugimendu bat sortzea, inguruneen lagunkoitasuna hobetzeko, betiere, protagonistatzat adinekoak hartuta.

1.2. UDALERRIETAKO LAN-METODOLOGIA

Euskadiko udalerrietan, OMEren lan-metodologiari jarraikiz garatu da ekimena; 4 fase ditu, eta etengabeko hobekuntza-zikloan oinarritzen da (1. Diagnostikoa eta plangintza, 2. Ezarpena, 3. Ebaluazioa, eta 4. Etengabeko hobekuntza).



Gainera, lan-metodologia «Bottom up» (behetik gora) hurbilpenean oinarritzen da; haren arabera, herritarren partaidetza oro har, eta adinekoena bereziki, proiektu honen oinarri nagusia da. Tartean diren eragile guztien partaidetza-prozesua sortuz garatzen da:

Behetik gorako metodologia



- Adinekoek eta herritarrek oro har egungo, iraganeko eta etorkizuneko egoeraren azterketan parte hartzen dute, argi eta garbi adierazita zer den beren ustez zahartze-prozesuarekin lagunkoia, zer arazo dituzten udalerriko eguneroko bizitzan, eta nola konpon daitezkeen.
- Tokiko komunitateko eragile guztien partaidetzari esker (administrazioa, boluntarioak, zerbitzu-hornitzaileak eta dendariak), eta adinekoek ematen duten informazioari esker, udalerriak lagunkoia izateko dauzkan indarguneen eta oztopoen irudi osoagoa eskaintzen da.
- Ikerketaren arduradunek tokiko ebaluazio horren berri ematen diete arduradun politikoei, planifikatzaileei, adinekoei eta herritarrei oro har, udalerrria adinarekin lagunkoiagoa izan dadin esku hartzeko abiapuntu gisa.

Prozesua ikerketa-ekintzaren postulatuek arautzen dute, esku hartzeko zortzi eremutan oinarrituta: aire zabaleko espazioak eta eraikinak; garraioa; etxebizitza; gizarte-partaidetza; errespetua eta gizarteratzea; partaidetza zibikoa eta enplegua; komunikazioa eta informazioa; eta gizarte- eta osasun-zerbitzuak.

Ikerketa-ekintzako eremuak



1
AIRE ZABALEKO LEKUAK
ETA ERAIKINAK



2
GARRAIOA



3
ETXEBIZITZA



4
PARTE-HARTZEA ETA
GIZARTE SAREA



5
HERRITARREN PARTE-
HARTZEA ETA ENPLEGUA



6
ERRESPETUA ETA
BARNE HARTZEA



7
KOMUNIKAZIOA
ETA INFORMAZIOA



8
GIZARTE ETA
OSASUN ZERBITZUAK

Hauek dira lehenengo hiru gaiak: aire zabaleko espazioak eta eraikinak; garraioa; eta etxebizitza. Udalerriko ingurune fisikoaren funtsezko ezaugarri direnez, eragin handia dute pertsonen mugikortasunean, segurtasunean, osasunaren sustapenean eta gizarte-partaidetzan. Hurrengo hiru gaiak (sareak eta gizarte-laguntza; enplegua eta partaidetza; eta errespetua eta gizarteratzea) gizarte-ingurunearekin eta kulturarekin erlazionatutako alderdiak islatzen dituzte, eta pertsonen partaidetzari eta ongizate subjektiboari eragiten diete nagusiki. Sareei eta gizarte-laguntzari dagokionean, gizarte-laguntzako sare informalei buruzko informazioa biltzen da; enpleguari eta partaidetzari dagokionean, adinekoek lan ordaindua eta ez-ordaindua lortzeko dauzkaten aukerei, erretiroaren esperientziari, herri-partaidetzako jarduerari eta aisiari buruzko informazioa jasotzen



da; eta errespetuari eta gizarteratzeari dagokionean, adinekoek eurek, beste pertsona batzuek eta komunitateak oro har adinekoen inguruan dauzkaten pertzepzioak, jokabideak eta portaerak sartzen dira. Azken bi eremuetan (komunikazioa eta informazioa; eta gizarte- eta osasun-zerbitzuak), zer komunikazio- eta informazio-bide eta -modu dauden aztertzen da, baita adinekoek hiriko laguntza-, gizarte- eta osasun-zerbitzuak zer neurritan erabiltzen eta ezagutzen dituzten ere. Hiri-bizitzako zortzi alderdi horiek elkarri gainjartzen zaizkio, eta elkarri eragiten diote; horrela, adibidez, gizarte-partaidetza gizarteratzeari lotuta ageri da, baita informazioa eskuratzeari estu lotuta ere.

Horrela, zahartze aktiboa erabaki politikoen erdian jartzen da, eta ikuspegi integratzaile eta zeharkakotik jarduten da, hainbat eremutan, ez bakarrik gizarte-zerbitzuetan edo osasunean.





2. DIAGNOSTIKOA

Osasunaren Mundu Erakundeak ezartzen dituen estandarren barruan, udalerrri bat lagunkoia izan dadin egin behar den lehenengo fasea da adinekoei bereziki eta herritarrei oro har galdetzea zer arazo dituzten eguneroko bizitzan, ingurunearen alderdi negatiboak eta positiboak identifikatzeko. Adinekoek protagonistak izan behar dute etapa guztietan, bai beren egoera deskribatu eta azaltzerakoan, bai aldaketa-iradokizunak egiterakoan, baita udalerrian aurkitutako arazoak konpontzeko ezarri behar liratekeen hobekuntza-proiektuen inguruko erabakiak hartzerakoan ere.

Diagnostiko hau egiteko, informazio-bilketako tresna hauek erabili dira:

A. Bigarren mailako iturrien azterketa

Helburua: udalerriri buruz eskuragarri dagoen informazio guztia biltzea, bai alderdi soziodemografikoei buruzkoa, bai tartean diren agenteei eta garatzen ari diren programei buruzkoa.

B. Herritarrekin eta eragileekin egindako topaketak eta taldeak

Helburua: herritarrekin eztabaidatzea zer lagunkotasun-maila duen udalerriak, ideiak biltzea, eta herritar liderrak identifikatzea proiektua garatzen lagunduko duten lantaldeak osatzeko.

C. Lagunkotasunari buruzko galdera-sortak

Helburua: herritarren ustez oro har udalerriak zer lagunkotasun-maila duen ezagutzea, adierazle kuantitatiboak erabilita.

2.1. BIGARREN MAILAKO ITURRIEN AZTERKETA

Azkoitiako Udalak Matia Institutoren esku jarri du daukan informazio guztia, bigarren mailako iturrien bidez azterketa egin ahal izateko. Horretaz gain, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) eta Eustatek emandako datuak erabili dira.

2.1.1. Datu soziodemografikoak

Biztanleen Udal Erroldako azken datu ofizialen arabera (INE, 2017), Azkoitian 11.563 pertsona zeuden; haietatik, 2.205 pertsona 65 urte baino gehiagokoak. Kopuru hori biztanle guztiaren % 19,1 da; hau da, Azkoitiako 10 biztanletik ia 2 adinekoak dira.


Azkoitia: biztanleak, sexuaren eta adinaren arabera (2017)

	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak
Guztira	11.563	5.758	5.805
Guztira 65+	2.205	958	1.247
Portzentajea 65+	19,1	16,6	21,5
Guztira 80+	756	267	489
Portzentajea 80+	6,5	4,6	8,4

Iturria: Biztanleen Udal Errolda (INE, 2017)

Adineko horietatik, 756k 80 urte baino gehiago dituzte, beraz, udalerriko biztanleriaren % 6,5ak 80 urte baino gehiago ditu. Piramidean ikus daitekeen bezala, adineko biztanle kopurua asko handitu da azken urteetan.

Azkoitia: 1996ko eta 2017ko biztanleriaren piramideak



Iturria: Biztanleen Udal Errolda (INE, 2017)


Biztanleriaren piramideak azken urteotan udalerrriaren egitura demografikoan izan diren aldaketak erakusten ditu. Piramideak argi adierazten du 45 urte baino gehiagoko biztanleriaren kopuruaren handitzea eta gazte (10-35 urte) kopuruaren urritzea. Datu hauen arabera, 0 eta 10 urte bitarteko haurren kopurua ere handitu egin da, 1996. urtetik honaino bikoiztu egin da. Era berean, adineko pertsonen kopuruaren handitzea nabarmena da, bereiziki 80 urte baino gehiagoko emakumezkoen artean.

65 urtekoak eta gehiagokoak Azkoitian, Gipuzkoan, EAEn, Estatuan eta EBn (2017)

	BIZT. GUZTIRA	+65 BIZT.	+65 BIZT. %
Azkoitia	11.563	2.205	19,1
Gipuzkoa	719.282	155.453	21,6
EAE	2.194.158	476.115	21,7
Estaturia	46.572.132	8.764.204	18,8
EU (28)	511.522671	99.235.398	19,4

Iturria: Biztanleen Udal Errolda (INE, 2017)

65 urtetik gorakoen portzentajea Azkoitian, Gipuzkoan, EAEn, Estatuan eta EBn (2017)



Iturria: Biztanleen Udal Errolda (INE, 2017)

Aurreko grafikaren arabera, Azkoitiako 65 urtetik gorakoen ehunekoa (19,1), Gipuzkoakoa (21,6) eta Euskal Autonomia Erkidegokoa (21,7) baino txikiagoa da. Hala ere, Estatuaren (18,8) eta Europar Batasunaren ehunekoekin alderatuz, antzekoa da.

Azkoitia: Demografia, 2017

Portzentajeak	Udalerrria	Eskualdea	Gipuzkoa	EAE
Biztanleriaren urtetik urterako aldaketa	-0,2	0,17	0,2	0,21
Biztanleriak azken hamarkadan izandako aldaketa	7,19	7,32	3,5	2,44
Haur indizea: 0 eta 14 urte bitarteko biztanleak	17,76	16,68	14,69	14,04
Zahartze indizea: 65 urtetik gorako biztanleak	19,06	18,87	21,61	21,69
Gainzahartze-indizea: 75 urte eta gehiagoko biztanleak	9,8	8,79	10,61	10,84

Iturria: Eustat: Udalmap, 2017

Azkoitiako biztanleriaren urtetik urterako aldaketa % -0,2koa da, beraz, jeitsi egin da. Hau da, urte batean biztanle kopuruan izandako aldaketa aurreko urtekoarekin alderatuta, % 0,2 txikitu da.

Lehen esan bezala, Azkoitian haur kopurua handitu egin da azken hamarkadan, izan ere, haurren ehuneko (0 eta 14 urte bitartekoa) % 17,76koa da, eskualdeko (16,68), Gipuzkoako (14,69) eta Euskal Autonomia Erkideko (14,04) indizeak baino handiagoa. Beraz, Azkoitiako datuak eskualdeko, Gipuzkoako eta EAEko datuekin alderatuz, Azkoitiak haur gehiago dituela esan daiteke.

Zahartze indizea, hau da, 65 urtetik gorako biztanleria % 19,06koa da, eskualdeko portzentajea baino handiago (18,87) eta Gipuzkoakoa eta Euskal Autonomia Erkidegokoa baino txikiagoa (21,6 bi kasuetan).

Hortaz, haurren ehunekoa (% 17,76), 65 urtetik gorakoenaren ehunekoa baino txikiagoa (% 19,06) da; hau da, oso esanguratsua ez izan arren, 65 urtetik gorako biztanleen kopurua haurren kopurua baino handiagoa da. Hala ere, Azkoitiako datuak eskualdeko, Gipuzkoako eta EAEko datuekin alderatuz, Azkoitiak gazte gehiago dituela esan daiteke.



2.1.2. ERAGILEAK

Eragile hauekin egin da lan Azkoitia Lagunkoiaren esparruan:

Azkoitiako Udala:

2017ko maiatzean jarri zuen martxan proiektua Azkoitiako Udalak, Azkoitia Lagunkoia ekimenaren talde sustatzailearekin eta Matia Institutoko taldearekin batera.

Udaleko arduradun eta teknikariek lan egiteaz gain, honako hauek parte hartu zuten: herriko hainbat adineko pertsona, eragile ezberdinak, adinekoekin lan egiten duten erakundeetako ordezkariak naiz banakako pertsonak adinekoen zaintzan dabiltzanak, baita adinekoekin harremanetan daudenak ere bai.

Eragileen artean: San Jose egoitza, Hurkoa, Gurutze Gorria, Jubilatuen elkarteko ordezkari bat, Musika eskolako arduraduna.





2.2. EMAITZEN AZTERKETA: LAGUNKOITASUNARI BURUZKO GALDERA-SORTA ETA HERRI- TOPAKETAK

Azkoitiaren lagunkoitasun-maila neurtzeko eta aztertzeko, Udalak eskainitako informazioarekin lan egiteaz gain, ikerketa parte-hartzaileko prozesu bati eman zitzaion hasiera. Prozesu horretan, bi azterlan egin ziren: bata, kualitatiboa, herri-topaketen bidez; eta, bestea, kuantitatiboa, inkesten bidez.

Azkoitiaren kasuan, komunitatea aldaketa-eragile nagusi bihurtu da bere errealitatearen eraldaketa lortzeko, eta ikerketa-ekintza parte-hartzailearen helburuei jarraitzen die (Quintana, 1986):

- Komunitatea errealitateaz eta premiez kontzientziatzea, baita haiek baldintzatzen dituzten hurbileko eta urruneko faktoreez ere.
- Komunitateari ahalmena ematea, premia horiei erantzun ahal izateko martxan jarri behar liratekeen jardunen inguruko erabakiak hartzeko. Ikerketa-ekintza parte-hartzaileari esker, parte-hartzaileek beren indarguneak eta baliabideak aitor, erabil eta susta ditzakete helburuak lortzeko, baita komunitatearen indarrak eta ahalmena ere (Balcázar *et al.*, 1998).
- Komunitatearen konpromisoa lortzea, ekintza eraldatzailea martxan jartzeko.
- Ekintza eraldatzailearen autokudeaketa ahalbidetzea, ezarritako ordena mantendu nahi duten kontrol-sistemak kontuan hartu gabe gauza dadin.

2.2.1. METODOLOGIA

Azkoitia Lagunkoia talde sustatzailea eta Udala arduratu ziren Azkoitian informazioa galdera-sortaren bidez biltzeaz.

Inkestak etxez etxe buzoneatu ziren. Inkesta gehiago lortze aldera inkesta sortari erantzun ziotenen artean zozketa bat egin zen, eta irabazleak 350 euroko bonua eskuratu du HERRIXEN merkatari-elkarteko establezimenduetan erabiltzeko.

Eskutitza pertsona bakoitzak gordetzen zuen etxean zozketa zenbakiarekin. Prentsa bidez eman zen sariketaren berri eta inkestak jasotzeko 5 gune publikotan kaxak ipini ziren.

Herritarrek galdera-sortan parte hartu zutenez eta proiektuari buruzko informazioa jasotzeko nahia adierazi zutenez, prentsa-ohar bat kaleratu zen galdera-sortaren emaitzak azaltzeko. Informazioa bidali ere egin zitzaizen hala eskatu zuten guztiei.

2.2.1.1. LAGUNKOITASUNARI BURUZKO GALDERA-SORTA: FITXA TEKNIKOA

Azkoitiako 589 biztanlek erantzun diote galdera-sortari. Haietatik 363 emakumeak dira, eta 184 gizonak. Bestela esanda, laginaren % 61,6 emakumeak dira, eta % 31,2 gizonak.


Bestalde, lagina adinaren arabera sailkatuz gero ikusiko dugunez, inkestari erantzun diotenen % 30,2k 65 urte baino gutxiago dituzte. Aldiz, 65 urtetik gorakoak % 62,6 dira.

Galdera-sorta biltzeko lana 2017ko maiatzean egin zen.

Azkoitia: lagunkoitasunari buruzko galdera-sortako laginaren osaera

Portzentajea	N
Sexua	
Gizona	31,2
Emakumea	61,6
ED/EDE	7,1
Adina	
< 65 urte	62,6
≥ 65 urte	30,2
ED/EDE	7,1
	100,0
	589

Azkoitia: laginaren osaera





2.2.1.2. HERRI-TOPAKETAK: OSAERA

Topaketak egin dira hilero Azkoitian, eta, haietan, udalerraren lagunkotasun-diagnostikoa egiteko arlo tematikoak landu dira. Taldeak adostuta galdera-sortan jasotako puntuazioaren araberrako ordenean landu dira 8 arloak. Hala, lehenik, puntuazio txikiena jaso duten arloak landu dira (komunikazioa eta informazioa, eta partaidetza eta enplegua), alderdi positiboak, alderdi negatiboak eta hobetzeko proposamenak identifikatzeko metodologiari jarraikiz, aurrerago plana zehaztu ahal izateko.

Hona hemen topaketen osaera eta datak:

Data	Gaiak
2017/01/12	Talde sustatzailea osatzea.
2017/02/22	Ekimena talde sustatzaileari aurkeztea.
2017/04/26	Galdera-sortetarako metodologia zehaztea
2017/05/18	Euskadi Lagunkoia atxikitze dokumentua sinatzea.
2017/06/21	Galdera-sortetako faseen jarraipena
2017/09/20	Galdera-sortaren emaitzak ezagutaraztea.
2017/10/18	Bilboko jardunaldia aurkeztea. Taldea sustatzaileko kide batek aurkeztutako irisgarritasun-txostenari erantzutea. Informatikako lehen urratsei eta emozioei buruzko ikastaroak aurkeztea.
2017/11/15	Komunikazioa eta informazioa
2017/11/27	Prentsa-ohar bat kaleratzea, azkoitiarrei galdera-sortaren emaitzak ezagutarazteko.
2017/12/20	Enplegua eta partaidetza
2018/01/07	Partehartzea tea gizarte sarea
2018/02/21	Etxebizitza



2018/03/20	Etxebizitza
2018/04/18	Prozesu osoaren hausnarketa
2018/05/16	8 arloak lan talde zabalago batekin lantzea
2018/09/19	Lagunkoia proiektuaren inguruan egin daitezkeen hitzaldi desberdinak
2018/10/17	8 arloen errepassoa
2018/11/21	8 arloen errepassoa


Topaketa horietan sortutako informazio guztia laburbildu eta diagnostiko-txosten hau prestatzeko erabili da.

2.2.3. DIAGNOSTIKOAK: EMAITZAK

Atal honetan, udalerrian egindako topaketetatik eta lagunkoitasunari buruzko galdera-sortatik atera den informazioa bildu da. Ikerketa-ekintzako zortzi eremuen arabera ageri da informazioa.

ALDERDI OROKORRAK

Inkestei erantzun zieten Azkoitiako biztanle gehienek bizitzeko leku **atsegina** dela diote. Beraz, orokorrean, azkoitiar gehienek bere herria atsegina dela pentsatzen dute.



Udalerrien alderdi orokorrak

	Batere ez	Gutxi	Nahiko	Dezente	Oso	ED/EDE
Garbia	1,0	3,4	30,2	58,4	5,9	1,0
Zaratatsua	4,8	36,3	36,2	16,5	5,3	1,0
Atsegina	0,3	0,8	15,8	61,3	20,0	1,7
Merkea	8,8	26,0	55,0	7,0	1,0	2,2

Herriaren ebaluaketa orokorra egiteko, **garbitasunaren arloa** elementu garrantzitsuenetariko bat da. Alderdi honetan ere, inkesten emaitzek argi erakusten dute biztanleriaren adostasuna, gehienek (% 64,3) herria oso edo dezente garbia dagoela diote-eta. Hala ere, herritarrek kaleak garbi mantentzen dituzaten, garbitasun aldeko kanpainak egitea proposatu da. Gainera, Urola errearen garbitasun falta ere azpimarratu egin da. Honen garbiketa sakon baten beharra aipatu da.



Era berean, topaketetan **txakurren jabeei** zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egitea proposatu da. Izan ere, askok parkeetan edo kaleetan txakur kaka asko daudela diote eta ez dituztela lotuta eramaten denek. Horretaz gain txakurrentzako bereziki prestatutako guneak jarri behrako liratekeela ere aipatu da.

Birziklapenari buruz eta zaborraren kudeaketari buruz ere hitz egin da., parte-hartzaileek kontainer eta zakarrontzi gehiago jarri behar direla diote, ondo birziklatu ahal izateko. Garbiguneak irisgarriak eta eskuragarriak izan beharko liratekeela esan dute.

Bestalde, adostasun falta dago **soinuari dagokionez**. Inkestei erantzun dioten % 21,8k oso edo dezente zaratatsua dela diote. Guztira, inkestatuen erdia baino gehiagok nahiko edo gutxi aukerak hautatu zituzten. Topaketetan hainbat ekintzetan eta tabernen inguruan sortzen den zarata murriztea eta ordutegiak jartzea proposatu da, gertu bizi diren bizilagunak errespetatzeko. Bestalde trafikoaren ondorioz sortzen den soinua onartezina dela diote, eta proiekturen bat gauzatu beharko litzatekeela hau kontutan izan eta soinua gutxitzeko neurriak jartzeko.

Amaitzeko, inkesten emaitzen arabera, biztanleriaren % 55ak Azkoitia nahiko **merkea** dela dio. Hala ere, emaitzek inkestatuen % 26ak gutxi jarri zutela adierazten dute. Beraz, arlo honetan ere adostasun falta islatzen da.

Alderdi positiboak

- ❖ Udalerrri atsegina izatea
- ❖ Oro har garbia izatea

Alderdi negatiboak

- ❖ Garestia izatea
- ❖ Txakurren ordenantza ez betetzea
- ❖ Zaborren botatzea ondo ez kudeatzea
- ❖ Zaratatsua izatea tabernetako ekintzetan eta trafikoaren ondorioz.

Hobetzeko proposamenak

- ❖ Garbitasuna mantentzea
- ❖ Errekaren garbiketa egitea
- ❖ ZABORRAK:
 - Zaborrak botatzeko eta ondo birziklatzeko kontainerrak eta garbiguneak jartzea
 - Zakarrontzi eta kontainer gehiago jartzea, pilena bereziki eta baita tinten kartutxoentzako ere, herritarrek garbigunera joan behar ez izateko.
 - Ibaiaren garbitasunari buruzko kontzientziazio kanpaina: plazan ibain azaldutako zabor guztia jarri beharko litzateke kontenedoretan.



- Txikleak lurrera ez botatzeko sentsibilizazio kanpaina
- Urola erdiko mankomunitateari kontenedore irisgarriak eskatu
- Kukuerra-Beidazar baratza ekologikoen inguruan, zabor kontainerrak mantendu.
- ❖ TXAKUR-KAKAK:
 - Txakurren jabeei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egitea
 - Txakurrentzako gune bereziak jartzea
 - Ordenantza betearaztea
- ❖ ZARATA
 - Floreagan egiten diren Alai-batza ekintzetan zarata murriztea
 - Zarataren inguruan proiekturen bat gauzatzea

1. AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK

Etxebizitza baldin bada espazio pribatuaren adierazgarri nagusia (bai banakoarena, bai familiarena), aire zabaleko espazioak soziabilitatearena, alderdi publikoarena eta banakoaren eta taldearen arteko loturarena dira. Hiri lagunkoietan, bistan denez, garrantzitsua da aire zabaleko espazioak izatea, espazio erosoak, aisialdiaz gozatzeko eta besteekin harremanetan egoteko. Funtsezkoa da espazio horiek konfiguratzeko herritarrek udalerrriaren eguneroko bizitzan eta zahartze aktiboan parte har dezaten sustatzeko. “Kanpoaldeak eta eraikin publikoek oso eragin handia dute adinekoen mugikortasunean, independentzian eta bizi-kalitatean” (OME, 2007). Toki irisgarriak, seguruak eta ondo argiztatuak izatea, eta egoera onean egotea, funtsezkoa da herriko bizitza komunitariorako.

PARKEAK

Berdegunek

	Urtea	Udalerrria	Eskualdea	Gipuzkoa	EAE
Udalerrrian parke, lorategi eta berdeguneek hartzen duten azalera (m ² /biz.)	2017	20,36	31,05	23,21	21,5
Udalerrrian parke, lorategi eta berdeguneek hartzen duten azalera (% hiri lurzorua aldean)	2009	10,98	12,98	20,11	14,4


Iturria: Eusko Jaurlaritza (Udalmap)

Azkoitian hiriko parke, lorategi eta berdeguneek hartzen duten azalera (% 10,98) eskualdekoa baino txikiagoa da (% 12,98), baita Euskal Autonomia Erkidegokoa baino txikiagoa ere (% 14,4), eta Gipuzkoako batezbestekoa baino 10 puntu txikiagoa (% 20,11).

Dena den, inkestari erantzun dioten pertsonen % 50,1ak parke eta lorategi kopurua nahikoa dela diote. Inkestari emaitzek garbi islatzen dute alderdi hauek egoera onean, garbiak eta ondo kokatuta daudela. Gainera, inkestari erantzun dioten biztanle gehienek (60,2%) herriko parkeak eta berdeguneak irisgarriak direla diote. Hala ere, oso gutxi dira, % 18 izan ere, ondo ekipatuak daudela dioten biztanleak. Topakeketan parte-hatzaileek parkeetan ariketa fisikoa egiteko makinak falta direla adierazi dute.

Parke eta lorategietara joateko maiztasunari dagokionez, erdia baino gutxiagok (% 29,6) dezente edo oso maiz joaten direla diote. Data hau garrantzitsua da, kontuan hartuta toki horietan gizarte-harremanak eta loturak mantentzen eta sortzen direla.

Herriko parkeak eta berdeguneak



	Batere ez	Gutxi	Nahiko	Dezente	Oso	ED/EDE
Nahikoak daude	2,4	16,0	31,1	43,0	7,1	0,5
Ondo zainduta daude	3,4	12,2	31,4	45,0	7,1	0,8
Ondo kokatuta daude	0,8	4,9	25,3	59,4	9,0	0,5
Ondo ekipatuta daude	10,9	31,9	36,8	15,8	2,2	2,4
Maiz joaten da	7,1	27,0	27,8	23,3	6,3	8,5

Topaketetan udalerriko parke batzuk gutxiago zaintzen direla esan da. Halaber, parte-hartzaileek berdegune batzuetan lorategi politagoak jartzeko beharra azaldu dute. Altzibar plaza eta Intxaustiko parekea aipatu dira gehienbat. Eta Portu Enean eta Mataderoako tokian parkea falta botatzen dute. Musika eskolan dagoen lekuarekin parkea handitu eta gauza gehiago ipini beharko liratekeela ere aipatu da.

Honetaz gain, parkeen eta berdeguneen ekipamenduari buruzko proposamen batzuk egin dira, hala nola ariketa fisikoa egiteko makinak eta umeentzako txirristrak eta jokuak jartzea Batzoki aurreko parkean. Era berean, ibai ondoko paseoa zakarrontzi kopurua handitu behar dela eta parke batzuen iturriak berreskuratu eta garbitu behar direla esan da. Gainera, udalerriko hainbat lekutan, adibidez Berdura Plazan edo ikastolan, eserleku falta azpimarratu da.

Alderdi positiboak

- ❖ Parkeak ondo kokatuta egotea
- ❖ Eraikin publikoak egokiak eta irisgarriak izatea
- ❖ Komun publikoak ondo zainduta eta irisgarriak izatea

Alderdi negatiboak

- ❖ Parke batzuk ondo zainduta ez egotea (Altzibar eta Intxausti)



- ❖ Leku batzuetan parke falta izatea (PortuEne etea Matadero inguruan)
- ❖ Zakarrontziak (ibai ondoko paseoan bereziki) eta eserlekuak faltan egotea (Berdura plaza eta Ikastolan)
- ❖ Ariketa fisikoa egiteko makina gutxi egotea

Hobetzeko proposamenak

- ❖ Parkeak handitzea eta hobetzea
- ❖ Komun publikoen kopurua handitzea (Loiolako paseoan eta Zumarragara bidean dagoen bidegorrian)
- ❖ Zakarrontzi eta eserleku gehiago jartzea
- ❖ Herrian jolaserako leku gehiago izatea
- ❖ Adinekoek ariketa fisikoa egiteko elementu gehiago jartzea

EKIPAMENDU PUBLIKOA

Hobetzeko aipatu dira:

Hobetzeko proposamenak

- ❖ Plaza Balda: udaran eguzkiak asko jotzen du eta bertan itzalik ez dago, eserlekua petril moduan da, eskailerak daude bertara joateko eta plaza bertan ere baldosa handiak daude eta tartetik tartera zulo handiak daude.
- ❖ Bankuak leku huetan botatzen dira faltan: Trenbidearen Zumardia, Plaza berduran, Xabier Munibe ikastolan bankuak oso zahartuta daude eta erdi puskatuta. Orokorrean, Ikastolan oso banko gutxi daude. Eserleku gehiago itzalarekin adibidez Toki-Alai-tik Santa Cruz-era
- ❖ Iturriak: metalezkoak berreskuratu. San Juan-en pena da iturburuak izatea eta ez berreskuratzea.
- ❖ Zakarrontziak: ibai ondoko paseoan falta dira, gasolindegia parean.
- ❖ Ikastoletako ateak zabalik egon beharko lukete egunero, publikoak dira eta; askotan, futbolearen edo saskibaloian jolastera joan eta itxita egoten dira.
- ❖ Balda etxea txukundu.
- ❖ Irtenbidea azkar eman Idiaquez etxeari.
- ❖ Frontoirik ez dago urik sartzen ez denik euria egitean.
- ❖ 7 frontoietako itukinak konpondu.
- ❖ Igerilekua aldatu beharra dago, ez da tokirik egoten, eta kanpoko igerilekuan 2 kale 25 metrokoak errespetatu igeri egin nahi dutenentzako.
- ❖ Ibai-Ondo kalean, Jausoro aldera ura galtzen da uneoro, lehen metalezko iturria zegoen lekuan, lehen bezela iturria jarri eta ura errepidera isurtzea ekidin beharko litzateke.



- ❖ Parrokia aurreko andamioak kendu beharko lirateke
- ❖ Herri sarrerek txukunagoa beharko luke Lidl inguruan.
- ❖ Altzibar eta Jausoro artean zubia beharko litzateke bi auzo gerturatzeko.
- ❖ Munategi-n semaforoak beharko lirateke oinezkoentzat.
- ❖ Beharrezkoa da semaforo bat Intxausti Palazioaren kruzean.


GOIKO AUZOETARA MUGIKORTASUNA

Azkoitian nabarmen geratu den gaietako bat goiko auzoetarako mugikortasunerako dagoen arazoa da. Hilerrira joateko adibidez malda handiko aldapak daudela diote eta hilerrira barrutik ere ez dela irisgarria.

Inkestetan komentatu da baserriak eta auzoak nahiko ahaztuta daudela iruditzen zaiela. Baserri bide asko daude urte askotan berritzeko zain.

Auzoetako jendea, orokorrean herri erdira jeisten dela diote. Auzo batzuk erdigunean daude baina batzuk aparte eta zerbitzu gutxi dituztela nabarmendu dute. Goiko auzoetakoak ez dira hainbeste jeisten herrira eta aztertu beharko litzateke zergatik ez diren etorzen, edo zer beharko luketen behera jeisteko.

Azkoitiako inkestetan eta topaketetan udalerriko **igogailuak** ere ebaluatu dira. Izan ere, auzo batzuen eskuragarritasuna bermatzeko funtsezkoak dira. Beheko taulan, inkestako igogaluei buruzko galderetan adierazitakoa jaso da.



	Batere ez	Gutxi	Nahiko	Dezente	Oso	ED/EDE
Igogailua: maiz erabiltzen du	45,3	23,8	9,0	10,2	8,5	3,2
Igogailua: ondo kokatuta dago	4,6	5,4	20,2	44,8	15,8	9,2

Inkestako emaitzen arabera, igogailua maiz erabiltzen duten herritarren ehunekoak % 18,7koa da. Gehienek (% 60,6) ondo kokatuta daudela adierazi dute. Hala ere, topaketetan igogailu gehiago jartzea proposatu da, Atxabaletan, edo Floreagan, esate baterako. Era berean, elkargune ondoko igogailua zikina egoten dela esan da.

Alderdi positiboak

- ❖ Igogailuak ondo kokatuta egotea

Alderdi negatiboak

- ❖ Igogailu batzuk zikinak egotea

Hobetzeko proposamenak

- ❖ Igogailu gehiago jartzea: Atxabaletan, Floreagan eta tanatorioetik San Martinera
- ❖ Igogailuen garbitasuna mantentzea

ERAIKIN PUBLIKOAK

Orokorrean, eraikin publikoak, udaletxea, liburutegia edo osasun zentroa, esate baterako, irisgarriak dira.

Hala ere hobekuntzak proposatu dira:



- Ogasunan (Udaletxean) koxka txiki bat dago eta arrapala txiki batzuk jartzea komentatzen da.
- Jubilatuen elkarteko igogailua askotan puskatuta dago asko erabiltzen delako.
- Osasun zentroko igogailua mantsoa dela aipatu dute eta oso itxia eta zaharra.
- Ongizate sailean eserleku gutxi daudela komentatu dute, ez dago leku asko gurgil-aulkiarekin ibiltzeko.
- Ate automatikoak ere ondo egongo lirateke, leku batzuetan espazio gutxi baitago maniobratzeko.

Alderdi positiboak

- ❖ Eraikin publikoak egokiak eta irisgarriak izatea

Hobetzeko proposamenak


- ❖ Ate automatiko gehiago jartzea
- ❖ Osasun zentroko igogailua egokitzea
- ❖ Ogasunan (Udaletxean) koxka txiki bat dago eta arrapala txiki batzuk jartzea
- ❖ Ongizate sailean eserleku gehiago

KALEAK

Herriko kaleen eta espaloien egoera faktore garrantzitsuenetako bat da hiriak lagunkoiak diren ala ez erabakitzerakoan, herriaren irigarritasunarekin lotura handia duelako. Izan ere, espaloi eta kale meharrak, kaltetuak edo hautsiak biztanleen mugikortasuna baldintzatu dezakete.

Inkestako datuek arlo honetan, Azkoitiako kaleen egoeraren ebaluaketan, adostasun falta erakusten dute. Inkestari erantzun dioten % 29,5ak oso edo dezente zainduta daudela pentsatzen du. Berriz,% 41,9ak nahiko zainduta daudela dio eta % 19,2ak gutxi erantzun du.

Espaloiak eta kaleak



	Batere ez	Gutxi	Nahiko	Dezente	Oso	ED/EDE
Ondo zainduta daude	7,1	19,7	41,9	26,8	2,7	1,7
Irisgarriak dira	6,1	24,4	37,4	27,5	2,7	1,9
Atsedean hartzeko tokiak dituzte	0,8	10,9	36,7	44,3	6,1	1,2

Udalerriko kaleen irisgarritasun-mailari dagokionez, inkestatuen herena baino gehiagok (% 37,4) nahiko irisgarriak direla dio, beste batzuk (% 30,2) ados daude herriaren irisgarritasunarekin. Beraz, argi dago arlo honetan adostasun falta dagoela azkoitiarren artean.

Hala ere, biztanleriaren erdiak beharrezko atsedean hartzeko tokiak daudela pentsatzen du. Izan ere, % 50,4ak oso edo dezente aukera hautatu du.

Bestalde, topaketetan udalerriko kale eta plaza batzuk zaharberritu behar direla esan da, batez ere Plaza Berrian eta Kale Nagusian. Gainera, kale askotan gurpil aulkiak erabiltzeko zailtasunak ikusten direla aipatu dute.

Alderdi positiboak

- ❖ Atsedean hartzeko tokien kopurua egokia izatea

Alderdi negatiboak

- ❖ Kaleak irisgarriak ez izatea
- ❖ Kanean zulo asko egotea
- ❖ Espaloiak ondo zainduta ez egotea
- ❖ Bizikletek, patineteek eta autoek oinezkoen espaloiak ez errespetatzea
- ❖ Bizikletak eta patineteak abiadura handiz ibiltzea
- ❖ Ikuspen gutxiko zebra-bideak egotea

Hobetzeko proposamenak



- ❖ **ESPALOIAK:** Espaloiaren egoera orokorra hobetzea eta egokitzea:
 - Nemesio Otañoko igogailura doan espaloia konpontzea
 - San Martin auzoan espaloiak konpontzea
 - Plaza Berriko lurzorua eta San Martingo espaloia (kasu hontan igogailutik irteten dena) egokitzea gurpil-aulkiak igaro ahal izateko
 - Gasolendegitik jaisten den bidegorria aurreko espaloiarekin ondo lotzea
 - Gasolindegiko atzeko partean oinezkoentzat bidea jartzea
 - Beizadar kaleko espaloiko zuloak estaltzea
 - Osasun zentro eta haurreskola inguruko espaloiak konpontzea
- ❖ Kale Nagusian solte dauden baldosak konpontzea
- ❖ Kaleen irigarritasunari buruz hitz egiteko taldeak sortzea
- ❖ Bizikletetek eta patineteek oinezkoen espaloiak errespetatzeko kanpainak egitea
- ❖ Zebra-bideak:
 - Zebra-bideen irisgarritasuna, ikusgaitasuna eta argiztapena hobetzea, batez ere osasun zentroko zebra-bidean
 - Gasolineratik jaisten den bidegorria pareko espaloiarekin egoki lotu.
 - Zebra-bideetan ikusgaitasuna hobetu, askotan gidariak ezin baitu ikusi oinezkoa badatorren edo ez.
- ❖ Udaltzaingoa gehiago egotea Santa Klara eta matadero ondoan
- ❖ Plaza Berria berritzearen egutegia eta lanak nola izango diren Udalak publiko egitea.
- ❖ Udalari herriko lan guztiei buruzko informazioa zabaldu dezala eskatzea
- ❖ Aparkalekuaren arazoa konpontzea autoek espaloietan aparkatzeko beharra izan ez dezaten

HERRITARREN SEGURTASUNA

Segurtasun-sentsazioak nabarmen eragiten du udalerriko leku batetik bestera mugitzeko joeran; hortaz, zuzenean aldatzen du herritarren eguneroko ohitura. Horrek, gainera, haien independentzian, osasun fisikoan, integrazioan eta ongizatean eragina du. Herritarren segurtasunak biztanleriaren bizi kalitatearekin lotuta dago. Beraz, alderdi honen ebaluaketari merezi duen garrantzia eman behar zaio.

Herritarren segurtasuna

	Urtea	Udalerrria	Eskualdea	Gipuzkoa	EAE
Ibilgailuek harrapatutako oinezkoak erregistraturiko istripuetan (10.000 biztanleko)	2017	4,31	2,65	4,68	4,55
Udalerrrian erregistratutako trafiko istripuak (%o biztanle)	2017	5,09	7,55	9,23	9,29
Udaltzain kopurua (%o biztanle)	2015	1,21	1,29	1,62	1,53
Delitu-indizea (%o biztanle)	2017	15,29	26,66	30,17	37,39


Iturri: Eusko Jaurlaritza (Udalmap)

Azkoitian, jasotako datuen arabera, delituen indizea (%o 15,29) eskualdeko, Gipuzkoako eta Euskal Autonomia Erkidegoko indizeak baino askoz txikiagoa da. Era berean, 2017. urtean erregistratutako trafiko istripuen kopurua ere txikiagoa da, beste datuekin konparatuz.

Azkoitiako udaltzain kopurua biztanleen %o 1,21koa da, eskualdekoaren antzekoa, baina Gipuzkoakoa (%o 1,62) eta Euskal Autonomia Erkidegokoa (%o 1,53) baino txikiagoa, desberdindatuna oso esanguratsua ez izan arren. Hala eta guztiz ere, topaketetan parte-hartzaileek udalerriko hainbat tokitan udaltzain zaintza urria dela komentatu dute.

Herritarren segurtasuna

	Batere ez	Gutxi	Nahiko	Dezente	Oso	ED/EDE
Ondo argiztuta daude	5,3	11,4	30,7	40,2	5,4	7,0
Ondo zainduta dago	10,2	30,6	35,7	17,1	2,2	4,2
Lapurreta arriskua dago	2,7	24,8	39,0	22,5	8,3	2,7
Zenbait tokitan ez zara seguru sentitzen	26,0	25,5	19,2	11,7	3,1	14,6



Inkestari erantzun dioten herritarren erdia baino gehiago (% 56,6) ados dago udalerriko argiztapenarekin. Hala ere, % 30,7ak, hau da, inkestatuen herenak, nahiko argiztatuta dagoela dio.

Bestalde, galdetutako pertsona gehienek udalerrria gutxi zaindua dagoela uste dute. Grafikan ikusten den bezala, % 30,8 ak lapurreta arrisku handia dagoela esan dute. Topaketetan arazo hau ere komentatu zen eta askok lapurreta asko zeudela adierazi zuten. Hala ere, inkestetan, gutxi dira (% 14,8) segurtasun falta handia nabaritzen dutela esan dutenak.

Alderdi positiboak

- ❖ Eremu ez seguru gutxi egotea

Alderdi negatiboak

- ❖ Argiztapen eskasa izatea herrian eta auzoetan
- ❖ Udaltzain gutxi egotea
- ❖ Lapurreta arriskua handia izatea

Hobetzeko proposamenak

- ❖ Zebra-bideen argiztapena hobetzea
- ❖ Futbol zelai atzean argiztapena jartzea
- ❖ Eliz atarian eta Plaza Berrian argi gehiago jartzea
- ❖ Matadero inguruan argiztapena jartzea gauzez pasa ahal izateko

2. GARRAIOA

Zahartze aktiboa sustatu ahal izateko, garraioaren ebaluaketa zehatza egiteko beharra dago. Atal honetan, udalerrian barrena eta udalerritik kanpo mugitzeko erabiltzen diren ibilgailu publiko eta pribatuei buruzko informazioa jaso da.

Garraioa eta mugikortasuna

	Urtea	Udalerrria	Eskualdea	Gipuzkoa	EAE
Udalerritik kanpo lan egiten duen 16 urte edo gehiagoko biztanleria okupatua (%)	2011	58,38	57,35	56,74	56,45
Udalerritik kanpo ikasten duen 16 urte edo gehiagoko biztanleria (%)	2011	95,5	82,32	65,49	64,23
Ibilgailu-parkea (Ibilgailu/bizt)	2016	0,58	0,59	0,63	0,6
EAEko gainerako udalerrietara joateko batez besteko denbora (min.)	2007	36,46	-	-	-
Udalerrriaren irisgarritasuna	2007	63,2	-	-	-

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Udalmapa


Jasotako datuen arabera, udalerritik kanpo lan egiten duen 16 urtetik gorako biztanleria kopurua eskualdeko, Gipuzkoako eta Euskal Autonomia Erkidegokoa baino handiagoa da. Era berean, udalerritik kanpo ikasten duen 16 urte edo gehiagoko biztanleria kopurua askoz handiagoa da beste datuekin alderatuta.

AUTOBUSA

Grafikan ikus dezakegun bezala, Ahoitiako biztanleria ados dago autobusaren zerbitzuarekin. Hala ere, inkestari erantzun dioten herritarrek ez dute asko erabiltzen autobusa, bakarrik % 22,6ak maiz erabiltzen duela dio.

Autobus zerbitzuaren ebaluaketa orokorra positiboa izan arren, topaketetan hainbat proposamen egin dira zerbitzu hau hobetzeko.

Autobusa



	Batere ez	Gutxi	Nahiko	Dezente	Oso	ED/EDE
Geraleku nahikoa dago	0,7	3,2	18,8	49,4	16,3	11,5
Ibilbideak eta maiztasunak onargarriak dira	1,2	7,3	19,5	51,4	14,6	5,9
Prezioa neurrikoa da	2,9	5,8	27,3	42,4	16,3	5,3
Maiz erabiltzen du	24,6	27,2	22,9	14,1	8,5	2,7

Inkestako parte-hartzaile gehinek (% 66) autobusen ibilbideak eta maiztasunak egokiak direla esan dute. Era berean, geralekuen kopuruarekin ados daude, izan ere, erdia baino gehiagok (% 65,7) geraleku aski daudela adierazi dute.

Bestalde, autobusaren prezioari dagokionez, inkestatuen % 58,7ak neurrikoa dela dio. Autobusa eta tren erabiltzeko txartel bakarra jartzea proposatu dute.

Beraz, orokorrean, inkesten emaitzek biztanleria autobus zerbitzua ondo kalifikatu duela adierazten dute. Dena den, topaketetan, biztanle askok hainbat hobekuntza proposatu dute. Alde batetik, autobus batzuen maiztasunaren eta ibilbideen ikerketa egitea eta bere irisgarritasuna hobetzea, pertsona batzuk arazoak izaten dituztelako autobusera igotzeko orduan.

Beste alde batetik, asteburuko eta gaueko autobus zerbitzua berreskuratzeko nahia azaldu dute. Gainera, autobus batzuen tamaina handitzeko onurak azpimarratu dituzte, umeak eskolara eramateko, besteak beste.

Honez gain, udalerritik kanpo joaten diren autobus gehiago jarri behar dira, adibidez, Bilbora edo Gasteizera joateko. Era berean, Donostiatik Azkoitiara joaten den autobusaren orduetgia luzatzeko proposatu dute.

Alderdi positiboak

- ❖ Geraleku nahiko izatea
- ❖ Prezioa egokia izatea

Alderdi negatiboak

- ❖ Geltoki batzuk markesina ez izatea
- ❖ Asteburuko eta gaueko autobus zerbitzuaren falta

Hobetzeko proposamenak

- ❖ Julio Urkijo kaleko autobus geltokia hobetzea
- ❖ HERRI BARRUKO AUTOBUS ZERBITZUA:
 - Autobusen maiztasunaren eta ibilbideen ikerketa egitea
 - San Martinera eta Floreagara doazen autobus maiztasuna areagotzea
 - Osasun zentrorara doazen autobusak areagotzea
 - Atxabaleta igotzeko autobus gehiago jartzea, baita kanpoko igerilekura ere.
 - Orokoreran autobus urbanoaren maiztasuna areagotzea.
- ❖ HERRITIK KANPORAKO AUTOBUS ZERBITZUA:
 - Autobusa eta trena erabiltzeko txartel bakarra jartzea
 - Gaueko autobus zerbitzua berreskuratzea
 - Autobusen irisgarritasuna hobetzea
 - Bilbo eta Gasteizera joateko autobusa jartzea
 - Donostiatik Azkoitiara joaten den autobusaren ordutegia luzatzea
 - Autobus linea berriak jartzea Mutriku, Deba eta Ondarroara joateko eta baita azpeitia-ermua Altzibarretik igaroz.

AUTOA

Udalerriko garraio biderik garrantzitsuenetako bat autoa da, 2016an Azkoitiak zuen ibilgailu-parkeak erakusten duen moduan; alegia, 0,59 ibilgailu pertsonako. Azkoitian autoak asko erabiltzen direnez, topaketetan hainbat proposaketak egin dira gai honen inguruan, atal honetan ikusi den bezala.

Herritarren segurtasuna


	Urtea	Udalerrria	Eskualdea	Gipuzkoa	EAE
Ibilgailuek harrapatutako oinezkoak erregistraturiko istripuetan (10.000 biztanleko)	2017	4,31	2,65	4,68	4,55
Udalerrrian erregistratutako trafiko istripuak (%o biztanle)	2017	5,09	7,55	9,23	9,29

Udaltzain kopurua (%o biztanle)	2015	1,21	1,29	1,62	1,53
Delitu-indizea (%o biztanle)	2017	15,29	26,66	30,17	37,39

Iturria: Eusko Jaurlaritza (Udalmap)

Udalmapen datuen arabera, 2017. urtean Azkoitian erregistratutako ibilgailuek harrapatutako oinezkoen kopurua 4,31ekoa izan zen 10.000 biztanleko, eskualdekoa baino azko ere handiagoa (2,65), baina Gipuzkoakoa (4,68) eta Euskal Autonomia Erkidegoko (4,55) kopurua baino txikiagoa. Era berean, udalerrian erregistratutako trafiko istripuen kopurua, beste kasuetan baino askoz txikiagoa izan zen.

Trafikoa eta zirkulazioa



	Batere ez	Gutxi	Nahikoa	Dezente	Oso	ED/EDE
Trafiko seinaleak errespetatzen dira	4,9	19,7	35,8	33,6	3,6	2,4
Oinezkoek gurutzatzeko behar adina irauten dute semaforoek	25,0	31,2	17,5	13,8	5,8	6,8
Abiadura onean doaz ibilgailuak	6,6	19,2	45,5	25,0	2,4	1,4

Inkestean emaitzek, trafiko eta zirkulazioaren arloan, desadostasuna adierazten dute. Inkestuetan heren batek (% 37,2) trafiko seinaleak errespetatzen direla pentsatzen du, berriz, beste herenak (% 35,8) nahiko aukera hautatu du.

Semaforoen iraupenari dagokionez, gehinenak ez daudela ados esan dute. Oso gutxi dira (% 19,6) bere iraupenarekin ados daudenak.

Beste aldetik, ibilgailuen abiadurari buruzko galderan, inkestuetan erdia baino gehiagok egokia ez dela esan dute. Izan eren, topaketetan ibilgailuek gehigizko abiaduran mugitzen direla esan da. Era



berean, bizikleten eta patineteen abiadura egokia ez dela argi adierazi da, hauetako asko espaloietatik doaz eta askotan arriskutsua da bere abiadura dela-eta.

Aparlekuen inguruan arazo asko aipatu egin dira topaketetan, Azkoitiako leku askotan aparkaleku gehiago behar direlako. Hau dela eta, udalerriko kale askotan, Kale Nagusian besteak beste, ibilgailu asko aparkatu egiten dira espaloietan, oinezkoen pasalekuak errespetatu gabe.

Gainera inkestetetan aipatu da Xabier Munibe eta Floreagako ikastetxeetan gertatzen dena egunero gurasoen ibilgailuekin ez dela bidezkoa, umeek oinez joan beharko lukete eskoletara eta ez bakoitza ibilgailu batean, horrek sortzen duen eragozpena ikusirik.

Alderdi positiboak

- ❖ Udalerrian erregistratutako trafiko istripuen kopurua txikia izatea

Alderdi negatiboak

- ❖ Aparkaleku falta
- ❖ Autoen abiadura
- ❖ Bizikletek eta patineteek oinezkoen espaloiak ez errespetatzea
- ❖ Semaforoen iraupena laburra izatea

Hobetzeko proposamenak

- ❖ Aparkaleku gehiago jartzea (arazo gehienak Floreagan, aire libreko igerilekuan , frontoiaren inguruan, Ibaiondo kalean, Santa Klara inguruan eta San Martingo baldan antzeman dira)
- ❖ Ibilgailuek espaloiak errespetatzea
- ❖ Plaza Verdurasen atzeko espaloian piboteak jartzea autoak sar ez daitezen
- ❖ Autoen abiadura moteltzea (Julio Urkijon abiadura muga bi aldeetan ipintzea)
- ❖ Udaltzaingoek aparkatzeko araudiak betetzea, espaloietan aparkatuta dauden autoei izunak jartzea eta desgaituen aparkalekuak zelatzea ondo erabiliak izan daitezen
- ❖ Kontzientziazio kanpaina bat egitea umeak eskolara oinez joan daitezen eta udaltzainek eskola sartu eta irteeretan legeak bete araztea.

3. ETXEBIZITZA

Etxebizitza funtsezkoa da segurtasunerako eta ongizaterako. Etxebizitzaren ezaugarriek eguneroko bizitza baldintzatzen dute, beraz, etxebizitza orokorrean egokia ez bada, irisgarria ez bada esate baterako, bizi kalitatean eta independentzian ondorioak ikusiko dira.

Adineko pertsonen bizi kalitatea bermatu ahal izateko, etxebizitzak egokitu behar dira irisgarriak izan daitezzen. Etxebizitzak ez ezik, bere inguruneak ere kontuan hartu behar dira. Beheko taulan Azkoitiako etxebizitzaren ezaugarri batzuk, eskualdeko, Gipuzkoako eta EAeko datuekin alderatu ditzakegu.

Etxebizitza eta urbanizazioa

	Urtea	Udalerrria	Eskualdea	Gipuzkoa	EAE
Etxebizitza-dentsitatea egoitza-lurzoruan (Etxebizitza/ Ha.)	2017	60,05	64,81	62,43	46,69
Hutsik dauden etxebizitzak (%)	2011	13,46	14,19	12,77	11,4
50 urtetik gorako antzinatasuna daukaten etxebizitzak (%)	2016	22,82	17,12	27,3	28,01
Etxebizitza nagusien erosotasun indizea	2011	73,8	72,9	72,3	72
Aurri-egoeran, egoera txarrean edo egoera eskasean dauden eraikinetako familia-etxebizitza nagusiak (% biztanle)	2001	24,39	12,89	14,91	8,66
Etxebiden dauden etxebizitza-eskabideen kopurua (% biztanle)	2017	39,31	44,64	40,57	40,07
Etxebidek azken bost urteetan adjudikatu dituen etxebizitza (%biztanle)	2017	0	0,9	3,52	3,41
Hiri lurzorua (%)	2017	2,71	6,68	3,94	3,8
Bizitegi azalera urbanizgarria (%)	2017	18,99	12,04	11,99	12,2
Biztanle dentsitatea (biztanle/Km2)	2017	209,47	232,41	377,05	309,26


Iturria: Eusko Jaurlaritzako Udalmapa

Udalmapen datuen arabera, 2011. urtean, Azkoitiako etxebizitza nagusien erosotasun indizea, eskualdekoa, Gipuzkoakoa eta EAeko baina handiagoa zen. Azkoitian 50 urtetik gorako antzinatasuna zeukaten familia-etxebizitzaren ehunekoa (22,82) eskualdekoa (17,12) baino handiagoa zen. Hala ere, Gipuzkoako eta Euskal Autonomia Erkidegoko datuekin alderatuta, Azkoitiako ehunekoa askoz ere txikiagoa zen.

Beste aldetik, 2001. urtean egoera txarrean zeuden eraikinetako familia-etxebizitza nagusien portzentajea handia zen, izan eren, eskualdeko, Gipuzkoako eta Euskal Autnomia Erkidegoko ehunekoak baino handiagoa.

2017. urtean jasotako datuek Azkoitiako biztanle dentsitatea beste alderdiekin alderatuta txikia da.

Etxebideko etxebizitza-eskaerei dagokienez, ehunekoen arteko desberdintasuna handia ez izan arren, Azkoitiako ehunekoa besteak baino txikiagoa da.



Eraikinetan berritze- edo mantentze-lanak egiteko laguntza zehatzak ezaguerari buruzko galderan egiterakoan, gehienek hauen berri ez dutela esan dute.

Etxebizitzen prezioari dagokionez, gehienek honekin ados ez daudela adierazi dute. Izan ere, topaketetan etxebizitzak orokorrean garestiak direla esan da eta, beraz, gazteei etxebizitzak erosteko laguntzak emateko beharra azpimarratu da.

Inkestatuen herenak (% 32,9) bere etxebizitza egokituta dagoela adierazi du. Hala ere, topaketetan askok etxebizitzan, batez ere komunetan, irisgarritasun falta dutela esan dute. Gainera, udalerriko etxe zaharkituenak alde zaharrea daude eta bertan bizi diren pertsona gehienak adinekoak dira. Haueko askok arazo ekonomikoak izaten dituzte igogailuak eta horrelako elementuak ordaintzeko. Halaber, patrimonio historikoko legeak etxe batzuen berritze lanak eragozten ditu eta askotan etxebizitzak berritzeko behar diren baimenak eskatzeko zailtasunak izaten dituzte. Horregatik, patrimonio historikoa mantentzeko arauak malgutasun gehiago behar dutela adierazi da.



Beraz, parte-hartzaileek etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko proposamenak egin dituzte, esate baterako, diru publiko gehiago jarri beharko litzatekeela etxe zaharrak berritzeko eta biztanleriaren beharrak asetzeko.

Alderdi negatiboak

- ❖ Etxebizitzak garestiak izatea
- ❖ Etxebizitzak eta eraikinak berritzeko edo egokitzeko laguntzen berri ez izatea
- ❖ Egokitu gabeko etxebizitza ugari egotea
- ❖ Etxebizitza askotan, komunetan batez ere, egokitasun falta

Hobetzeko proposamenak

- ❖ Gazteei etxebizitzak erosteko laguntzak ematea
- ❖ Babes ofizialeko etxeak alokatzeko ere jartzea
- ❖ Etxebizitzak berritzeko laguntzen informazioa zabaltzea
- ❖ "Propiedad horizontal" legeari buruzko azterketa bat egitea
- ❖ Diru publiko gehiago jartzea etxeak berritzeko
- ❖ Adinekoak bizi diren etxeetan, ezin badute igogaiurik jarri edo jartzeko ahalmenik ez badute kasu bakoitza aztertzea.

4. PARTAIDETZA ETA GIZARTE-SAREA


Gizarte-harremanak oso garrantzitsuak dira banakoen bizitza osoan zehar. Zahartzaroan, harreman horiek are garrantzi handiagoa dute, bizitzako une horretan galerak baitira nagusi, zentzu guztietan (osasunekoak, sozialak eta fisikoak). Gizarte-sareaz hitz egitean, laguntza-trukearen ideia ere badago, hori baita sareak konfiguratzearen funtsa. Gizarte-sareak sistema informal bat eskaintzen du, sistema formalak bere gain hartzen ez dituen premiei erantzuten diena. Sareak egituratu eta berregituratu egiten dira, baliabideei eusteko edo haiek ugaritzeko.

«Harreman pertsonalak oso garrantzitsuak dira; gure ohiko taldekoengana ez ezik, beste pertsona batzuegana ere zabaldu behar dugu, pertsonetikiko harremanetan ustekabeko oso atseginak hartzen baitira»

FAMILIA

Familia izan ohi da laguntza-sare nagusia. Familia-loturak, funtsean, elkarrekikotasun-harremanetan oinarritzen dira, eta harreman horiek aldatuz joaten dira banakoaren etapa desberdinetan zehar. Bestela esanda: haurrek eta helduek laguntza ematen eta jasotzen dute, baina mota desberdinetakoa, batzuk eta besteak zein etapatan dauden.

Euskal gizarteak familia-sare sendoa du ezaugarri; hortaz, familia-elkartasuna da gizartearen elementu garrantzitsuenetako bat. Gaur egungo familien egitura aldatu bada ere, familia-loturak eta harremanak oinarritzekoak dira bizitzaren etapa guztietan.



	Batere ez	Gutxi	Nahiko	Dezente	Oso	ED/EDE
Familia kideek elkarri laguntzen diote	4,6	5,1	11,2	40,4	37,2	1,5
Familiarein harreman handia du	1,4	1,9	8,8	34,1	52,1	1,7
Familiaren etxeti hurbil bizi da	6,3	7,1	17,0	35,8	31,9	1,9

Galdera-sortak egiterakoan lortutako datuek argi eta garbi islatzen dute fenomeno hori. Inkestaris erantzun dioten gehienek (% 86,2) familiarekin harreman estua dutela adierazi dute. Horretaz gain, inkestatuen % 77,6ak dio familiako kideek asko edo dezente laguntzen diotela elkarri. Era berean, gehienek (% 67,7) bere familiaren etxetik hurbil bizi direla esan dute.

Beraz, orokorrean, udalerriko biztanleriak familiarekin harreman estuak eta aberasgarriak dituela esan daiteke.

Alderdi positiboak


- ❖ Familiarekin harreman handia izatea
- ❖ Senideak bizilekutik hurbil bizi izatea
- ❖ Maiz laguntzea elkarri

AUZOKOAK ETA DENDARIAK

Adinekoentzako beste laguntza-sare oso garrantzitsu bat auzokoak dira. Askotan, auzoko pertsonekin sortzen harremanak familia baten ezagurri asko izan ditzake. Izan ere, harreman hau oso estua izaten da, eta auzokoen artean laguntza eskatzeko ohitura nabarmena dago. Gainera, bereziki bakarrik bizi diren pertsonentzat, bizilagunei edo auzokoei laguntza eskatzeko aukera izatea oso onargarria da.

Beraz, auzokoen artean sortzen diren harremanei merezi duten garrantzia eman behar zaie, beheko grafikan ikus dezakegun bezala, eguneroko bizitzan daukaten eragina nabarmena izan daitekeelako.

Auzokoak eta dendariak



	Batere ez	Gutxi	Nahiko	Dezente	Oso	ED/EDE
Auzokoak ezagutzen ditu	0,8	6,6	16,3	47,0	28,4	0,8
Auzokoek elkarri laguntzen diote	6,8	20,9	31,4	31,2	8,7	1,0
Dendariak ezagutzen ditu	0,5	8,1	26,7	51,6	12,1	1,0
Egoera zehaztetzan laguntzen diote	12,9	14,9	20,7	22,4	7,8	21,2

Inkestaren emaitzetan ikus daiteke parte-hartzaileen % 76,4ak asko edo dezente ezagutzen duela auzokoak, eta % 39,9ak asko laguntzen diotela elkarri. Horrenbestez, laguntza-sare sendoa dago Azkoitiako herritarren artean. Elkarri hainbeste laguntzearen arrazoietakoa bat da udalerrri txikia dela eta, ondorioz, gehienek elkar ezagutzen dutela eta elkarrekin harreman estua dutela.

Hala ere, topaketetan herritarren arteko elkar laguntza galtzen ari dela adierazi da eta laguntza eskatzeko moduak aldatu direla baita. Herritarren arteko harremanak eta komunikatzeko moduak aldatu dira teknologia berrien hedapenen ondorioz, gaur egun laguntza eskatzeko edo norbaitekin harremanetan jartzeko telefonoak, besteak beste, erabiltzen direlako. Beraz, auzokoei edo bizilagunei laguntza eskatzeko ohitura galtzen ari da udalerrian.

Horretaz gain, bakarrik bizi diren pertsonenganako sentsibilitate falta dagoela komentatu da. Herritar batzuen bakardadea sahiestu ahal izateko, bakarrik bizi diren pertsoneri laguntza gehiago eskaintzea beharrezkoa dela adierazi da.



Beste aldetik, biztaliariaren eta dendariaren arteko harremanak ebaluatzean, azkoitiar gehienek (% 51,6) bere udalerriko dendariak ezagutzen dutela esan dute. Topaketetan herritarren eta dendariaren arteko harremanak onak direla esan da.

Udalerriko dendan irisgarritasunari dagokionez, parte-hartzaileek denda batzuk egokituak ez daudela komentatu dute, askotan eserlekuak edo espazio egoki gehiago faltan botzatzen direlako.

Alderdi positiboak

- ❖ Auzokoak dezente ezagutzea
- ❖ Auzokoen laguntza- eta elkarlan-sare sendoa izatea
- ❖ Dendariak dezente ezagutzea

Alderdi negatiboak

- ❖ Denden irisgarritasun falta
- ❖ Herritarren artean laguntza eskatzeko ohitura galtzea
- ❖ Bakarrik bizi diren pertsonenganako sentsibilizazio falta


Hobetzeko proposamenak

- ❖ Bakarrik bizi diren adinekoengana hurbiltzeko sentsibilizazio kanpainak egitea
- ❖ Banketxeetan irisgarritasuna bermatzea
- ❖ Establezimendu lagunkoia ekimenari jarraipena ematea
- ❖ Denden eta tabernen irisgarritasuna hobetzea
- ❖ Dendetan eserleku gehiago jartzea

AI SIALDIA

Aisialdian zer egin erabakitzea erronka handia izan daiteke adin handieneko biztanleentzat, hainbat faktorek baldintzatzen baitute, besteak beste, jasotako heziketa, gizonentzako eta emakumeentzako jardueren gizarte-desberdintasuna, osasun-egoera eta norberaren estereotipo sozialak.

Aisialdian zer egin ondo erabakitzeak eragin zuzena du pertsonen bizi-kalitatean; hori dela eta, funtsezkoa da behar diren baliabideak izatea aisialdia banakoarentzat emankorra eta pozgarria den moduren batera erabili ahal izateko.



	Batere ez	Gutxi	Nahiko	Dezente	Oso	ED/EDE
Aisialdiko jarduera ugari daude	5,9	25,3	37,5	21,2	3,1	7,0
Aisialdiko jarduerak arrazoizko prezioa dute	5,8	21,1	41,9	23,4	2,2	5,6
Aisialdirako tokiak ondo kokatuta daude	0,3	2,7	23,8	55,5	13,8	3,9
Elkarguneak irisgarriak dira eta egokituta daude	1,0	5,3	17,3	53,5	18,3	4,6

Aisialdiari dagokionez, jasotako datuen arabera, parte-hartzaileen % 24,3ak aisialdiko jarduera ugari daudela dio. Topakeketan herrian ekintza asko daudela adierazi da, batez ere musikarekin lotura daukaten aktibitateak. Gainera, orokorren hauen prezioa egokia dela diote.

Inkestetan, berriz, gehienak ez daude ados udalerrian eskeintzen diren aisialdiko jardueren kopuruarekin. Hala ere, erdia baino gehiagok aisialdiko tokiak eta elkarguneak ondo kokatuta eta egokituta daudela dio. Hauen irisgarritasuna ere ondo kalifikatu dute inkestatuek. Bestalde, kiroldegia garestia eta ez egokitua dela esan dute.

Era berean, adineekoen aisialdia hobetzeko, hainbat proposamen egin dira. Esate baterako, lehen memoria tailer batzuk ere egiten zirela diote, baina orain ez omen dago, beraz, hau berreskuratzea onugarria izango litzatekeela diote. Beste aldetik, kirol ekintza gehiago eskaintzea proposatu da, adibidez, ibilbide osasuntsuak.



Alderdi positiboak

- ❖ Musika jarduerak egotea
- ❖ Aisialdi ekintzen prezioa egokia izatea

Alderdi negatiboak

- ❖ Kiroldegia garestia izatea
- ❖ Irisgarritasun falta kiroldegian

Hobetzeko proposamenak

- ❖ Kiroldegiko irisgarritasuna hobetzea
- ❖ Aisialdi ekintzen eskaintza handitzea biztanleria osoaren partaidetza eta integrazioa sustatzeko
- ❖ Balda plazan kultur ekitaldi gehiago antolatzea: antzerkiak, gaueko zinea, bertsolaritza, dantzak...
- ❖ Futbola ez diren beste kirolak bultzatzea
- ❖ Adinekoentzat formakuntza ikastaroak egiteko
- ❖ Memoria taillerrak berreskuratzea
- ❖ Ibilbide osasuntsuak proposatzea
- ❖ Elkarguneko instalazioetan aire egokia jartzea


5. HERRI-PARTAIDETZA ETA ENPLEGUA

Gizarte-partaidetza oso lotuta dago osasuna eta ongizatearekin. Zehazki, adineko pertsonen gaitasunak lantzen jarraitzeko eta bere harremanak ondo mantentzeko funtsezkoa da. Partaidetza gizarte-dinamikaren funtsezko elementu bihurtzen ari da gizarteko sistema guztietan. Azken urteotan, adineko pertsonen partaidetza sustatu izan da bere gizarte-integrazioa hobetzeko. Beraz, erankunde askok adinekoen partaidetza hobetzeko proposamen asko eskaini dituzte eta honen inguruko informazioa geroz eta gehiago handitu egin da.

BOLUNTARIOAK ETA ELKARTEAK

Boluntarioak batez ere gizarte-zerbitzuei lotuta egon ohi dira. Boluntarioen eta gizarte-elkarteen lanak udalerriko ongizatean zuzeneko eragina dauka. Udalerrian hainbat motatako elkarteak egoteak biztanleriaren partaidetza sustatzen du. Hala ere, Azkoitian elkarteak egon arren, herritarren partaidetza urria da. Izan ere, bai topaketetan bai inkestetan, Azkoitian boluntario-jardueretan dabiltzan pertsonen kopurua txikia dela argi adierazi da.

Boluntarioak eta elkarteak



	Batere ez	Gutxi	Nahiko	Dezente	Oso	ED/EDE
Boluntario gisa aritzen da	51,6	24,3	11,2	5,8	4,1	3,1
Elkarteetan parte hartzen du	51,4	20,0	14,9	7,0	3,2	3,4
Udalerriko aktibitatean parte gehiago hartzea gustatuko litzaioke	16,0	20,0	37,9	15,4	3,1	7,6

Inkestako datuen arabera, Azkoitiako herritarren erdia baino gehiagok ez duela boluntario gisa aritzen dio. Era berean, oso gutxi dira elkarteetan parte hartzen dutenak (% 10,2). Gainera, datu hauen arabera, gutxi batzuk azaldu dute gehiago parte hartzeko gogoak.

Topaketetan herriko ekintzetan jendea mobilizatzeko zailtasunak daudela esan da. Izan ere, orokorrean hainbat jardueretan parte hartzeko gogo falta nabaria da. Dena den, herritarren artean laguntza eskaintzeko jarrera dagoela diote.

Beste aldetik, parte hartzaileek herritaren eta herriko elkarten arteko komunikazioa areagotzea komenigarria izango litzatekeela diote, guztien beharrak eta asmoak ezagutzeko.

Alderdi positiboak

- ❖ Herritarren artean laguntza eskaintzeko joera egotea

Alderdi negatiboak

- ❖ Boluntario jardueretan partaidetza urria
- ❖ Herri ekintzetan parte hartzeko gogo falta

Hobetzeko proposamenak

- ❖ Herritarren eta udalerriko elkarten arteko komunikazioa hobetzea
- ❖ Elkarte hauen beharrak ezagutzea, ea jendea behar duten eta zer ekintza motarako

ENPLEGUA

Enplegua gizartearen elementu garrantzitsuenetarikoa bat da. Krisialdia ekonomikoaren ondorioz, enpleguarekin lotutako arlo guztiek aldaketak jasan dituzte. Adineko pertsonen egoera ekonomikoa era aldatu egin da, izan ere, batzuk lan ordaindua egin behar izaten dute erretiroa hartzeko adina gainditu ondoren. Hala ere, beheko taulan ikus daitekeen bezala, Eustateko datuen arabera, 65 urteko eta gehiagoko biztanleen enplegu-tasa txikia da.

65 urteko eta gehiagoko biztanleen enplegu-tasa (2016)

65 urteko eta gehiagoko biztanleen enplegu-tasa	
EAE	1,35
Gipuzkoa	1,41
Azkoitia	1,24

Iturria: Eustat: «Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta»

Azkoitiako, EAEko eta Gipuzkoako 65 urteko eta gehiagoko biztanleen enplegu-tasak antzekoak dira. Hauen arteko desberdintasunak oso esanguratsuak ez izan arren, Azkoitiakoa txikiena da.



Topaketetan parte-hartzaileek bere herrian bertan lan egin nahi dutela adierazi dute, beraz, trasladoak eskatzeko aukerak handitzea proposatu dute.

Hobetzeko proposamenak


- ❖ Herrian lan egiteko aukera gehiago egotea, trasladoak eskatuz

6. ERRESPETUA ETA GIZARTERATZEA

Adinekoekiko eta zahartzaroarekiko jarrerak eta pertzepzioek eginkizun garrantzitsua dute herri lagunkoien eguneroko bizitzan, beste herritarrekin harremanetan jartzeko modua konfiguratzeko dutelako eta eragin erabakigarria dutelako autopertzepzioan. Estereotipo eta aurrekontzepzio horiek haustea funtsezkoa da adinekoak udalerriko bizitza sozialean integratu ahal izateko.

Inkestari erantzun diotenen % 60,9aren ustez, herritarrek asko edo dezente errespetatzen dituzte adinekoak. Oro har, erakundeetan adinekoak kontuan hartzen direla pentsatzen dute.

Adinekoekiko errespetua eta belaunaldiarteko harremana



	Batere ez	Gutxi	Nahiko	Dezente	Oso	ED/EDE
Udalerrian adinekoak errespetatzen direla uste du	1,5	7,3	27,7	53,1	7,8	2,5
Adin desberdinetako pertsonen artean harreman nahikoa dago	3,2	20,2	41,3	29,9	3,6	1,9

Inkestaren emaitzetan argi ikusten da herritar gehienek (% 60,9) Azkoitian adinekoak errespetatzen direla uste dutela. Hala ere, topaketetan errespetu hau duela urte batzuk nabamenagoa zela esan da. Gainera, familiaren osaeren aldaketa orokorra dela eta, belaunaldien arteko harremanak desberdinak dira, lehen familia osoa etxebizitza berean bizi zelako eta harremanak estuagoak



izaten ohi ziren. Inkesten emaitzek argi islatzen dute gai hau, izan ere, inkestatuen erdia baino gehiagok adin desberdinetako pertsonen arteko harreman gutxi dagoela adierazi du.

Era berean, topaketetan udaletxeak eta herriko beste erakundeek adinekoen egoerari merezi duen arreta eta garrantzia eman behar diotela esan da. Beraz, adinekoen ongizatea eta giza partaidetza bermatu ahal izateko, belaunaldiarteko harremanak eta denontzat eskuragarri diren aktibitateak bultzatzea proposatu da.

Alderdi positiboak

- ❖ Adinekoak errespetuz tratatzea
- ❖ Familiak eta erakundeek kontuan hartzen dituztela sentitzea

Alderdi negatiboak

- ❖ Belaunaldien artean harreman gutxi egotea


Proposamenak

- ❖ Belaunaldiarteko ekintzak martxan jarri

7. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

Zahartze aktiboa ahalbidetzeko, funtsezkoa da gertaerei eta inguruko pertsoneri lotuta egotea. Beraz, herri lakonkoietan oso garrantzitsua da informazioa behar den bezala transmititzea, desinformazioak gizarte siolamendua eta bakardadea eragin baitezake. Udalerriko komunikazio-fluxuek onak, sendoak eta egonkorrak izan behar dute, eta informazioak herritar guztiengana iritsi behar du, bide egokienak erabilita.

Beraz, udalerriko komunikazio bideak onak badira, herritar guztiek eskuragarri izango dute behar duten informazio guztia eta bere partaidetza erraztuko da. Horretarako, baliabideen arabera, komunikatzeko bideek sendoak eta irisgarriak izan behar dute.



	Batere ez	Gutxi	Nahiko	Dezente	Oso	ED/EDE
Udalerrian gertatzen denari buruz informazio nahikoa duela uste du	4,9	15,7	40,7	31,6	2,5	4,6
Badaki zer zentro publikotan erabil daitekeen internet doain	19,9	17,3	19,4	26,7	11,5	5,3



Inkestako datuen arabera, parte hartzaileen % 34,1ak uste du informazio asko edo dezente duela udalerrian gertatzen denari buruz. Hala ere, Azkoitiako herritarren laurdenak informazio gutxi dutela uste du.

Topaketetan, udalerrian egiten diren lanei buruzko informazio gehiago edukitzea nahi dutela esan dute. Esate baterako, udalako web orrian informazio gehiago zabaldu eta elkarbanatu daitekeela pentsatzen dute.

Topaketetan udalerriko informazioa udaletxeko web orrialdean aurkitu daitekeela aipatu da eta baita Maxixatzen-en. Oro har, parte hartzaileek informazio hau ondo antolatuta eta kokatuta dagoela pentsatzen dute. Hala ere, web orrialdearen erabilera zabaltzeko, batez ere adinekoen artean, internetaren eta ordenagailuen inguruko formakuntzak antolatzea proposatu da.

Era berean, udalerrian ematen den informazio guztiaren irisgarritasuna bermatzeko, kartel eta iragarki guztien letraren tamaina eta edukiak egokitu behar direla esan da. Beraz, iragarkiak irakurtzeko zailtasunik ez egoteko, hauek motzak, erakargarriak eta zehatzak izan behar dira. Gainera, informazio guztia ondo hedatzeko, panel elektronikoak jartzea eta interes komunak dituzten biztanleen artean informazio taldeak osatzea proposatu da.

Alderdi positiboak

- ❖ Orokorrean udalerriko informazioa ondo ezagutzea
- ❖ Informazioa hedatzeko tresnak izatea (udaletxeko web orrialdea, sare sozialak, Elkarguneko app-a...)

Alderdi negatiboak

- ❖ Interes falta
- ❖ Internetaren erabileraren inguruko ezjakintasuna
- ❖ Informazioaren luzeera, askotan iragarkian luzeegiak dira-eta


Hobetzeko proposamenak

- ❖ Informazioa laburtzea eta sailkatzea
- ❖ Iragarki taulak maiz garbitzea
- ❖ Adinekoentzat internetaren erabilirerari buruzko formakuntzak antolatzea
- ❖ Ordenagailuak erabiltzeko laguntza eskuragarri izatea
- ❖ Informazio non dagoen erraz eman ezagutzera
- ❖ Informazio taldeak osatzea
- ❖ Udalerriko informazioa gazteleraz jartzea, euskeraz ez dakitenentzat

8. GIZARTE- ETA OSASUN-ZERBITZUAK

Lurralde bateko osasun-sistemak eta gizarte-zerbitzuek osatzen dute pertsonak osasuntsu eta independente izaten jarraitzeko laguntza-egitura formala. Baliabide horiek garatu, ezagutu, eskuragarri jartzen badira, biztanleria guztiaren ongizate orokorra mantenduko edo hobetuko da. Beraz, udalerrian eskuragarri dauden zerbitzuen ezaguera edukitzea komenigarria da hauen erabipen egokia sustatzeko.

Zer gizarte-baliabide dauden eta non kokatuta dauden ezagutzea



	Batere ez	Gutxi	Nahiko	Dezente	Oso	ED/EDE
Etxez-etxe laguntza zerbitzua	21,4	21,7	17,7	27,8	9,0	2,4
Telelaguntza	27,7	21,6	15,8	20,5	10,9	3,6
Eguneko zentroak	14,8	20,2	21,7	27,0	14,4	1,9
Egoitza zentroak	17,1	21,4	21,2	25,6	12,4	2,2
Osasun zentroa: kokapena	4,8	8,1	26,3	41,8	16,8	2,2

Inkestaren emaitzen arabera, Azkoitian gizarte eta osasun zerbitzuen ezaguera egokia da, gehienek zerbitzu guzti hauen informazioa daukatela adierazi dute-eta. Hala ere, topaketetan gizarte zerbitzuetara gerturatzeko ohiturarik ez dagoela esan da. Ez da ondo ezagutzen gizarte zerbitzuetan egiten den lana.

Grafikan ikus daitekeen bezala, osasun zentroak ondo kokatuta daude. Gainera, topaketetan, parte hartzaileek osasun zerbitzuen kalitatearekin ados daudela esan dute. Dena den, larunbateko zerbitzua berreskuratu nahi dutela adierazi dute, Azpeitiara joan behar dute eta kotxerik ez



daukatenek zailtasunak izaten dituzte. Era berean, ez daukate gau farmazia zerbitzurik ezta asteburuko zerbitzurik ere.

Adineko pertsonen egoitzaren kokapenari dagokionez, oso urrun dagoela esan da eta, hori dela eta, bertan bizi diren partaidetza eta mugikortasuna sustazeko zailtasunak daude. Gainera, bere inguruan irigarritasun falta dago. Beraz, bere kokakepa aldatzeko proposamenak egin dira, batez ere, zentroan kokatzea egokia izango litzatekeela esan da.

Beste aldetik, teleasistentzia zerbitzuaren kalitatea ona dela esan da.

Alderdi positiboak

- ❖ Osasun zerbitzuen kokapena
- ❖ Teleasistentzia zerbitzua

Alderdi negatiboak

- ❖ Asteburuetan osasun zerbitzuak ez egotea
- ❖ Gaueko eta asteburuko farmazia zerbitzuak ez egotea
- ❖ Egoitza zentroaren kokapena
- ❖ Kanpotarren inguruko aurreiritziak


Hobetzeko proposamenak

- ❖ Gizarte Zerbitzuetatik informazio gehiago helaraztea herritarrei dauden zerbitzuei eta eskubudeei buruz.
- ❖ Egoitza zentroaren kokapena aldatzea, adibidez, udaletxeak duen erakin edo lokal bat egokituz, behean eta zentroan egon dadin
- ❖ Eguneko egoitza zentro gehiago jartzea eta hauek irisgarriak izatea
- ❖ Osasun zentroan guardia zerbitzua asteburuetara zabaltzea.
- ❖ Kanpotarrenaganako zurrumurrak saiesteko kanpainaren bat egitea.
- ❖ Heriotza zibila ospatzea herrian bermatzea

9. GOGOBETETASUNA

Amaitzeko, item batzuk bildu ziren galdera-sortan, udalerriko zenbait alderdiren inguruko gogobetetasun-maila neurtzeko. 0 eta 10 bitarteko eskalan baloratu behar ziren item horiek (0 = Ez nago batere pozik; 10 = Oso pozik nago).

Gogobetetasuna (1-10 eskala)



Grafikan ikus daitekeen bezala, kalifikazio handiena duen alderdia harremanekin zerikusia duena izan da, izan ere, bere batezbestekoa 7,73koa izan da. Parte-hartzaileek oso positiboki baloratu dute gaur egungo gizarte-sarea, orokorrean familiarekin eta bizilagunekin harreman onak dituztelako.

Bigarren tokian garraioa ikus dezakegu 7,06 puntuazioarekin. Inkestaren emaitzek biztanleria garraio zerbitzuen kalitatearekin ados dagoela adierazten dute. Topaketetan, autobusen maiztasuna eta ibilbideak egokiak direla esan da.

Bestalde, gizarte eta osasun zerbitzuak hirugarren tokian ikus ditzakegu, 6,68ko batez bestekoarekin. Puntuazioa txikia ez izan arren, topaketetan biztanle askok gizarte zerbitzuei buruzko informazio gutxi daukatela esan dute. Orokorrean gizarte zerbitzuetara gerturatzeko ohiturarik ez dagoela esan da. Beraz, ez da ondo ezagutzen gizarte zerbitzuetan egiten den lana.

Aisialdiak, grafinarako laugarren tokian kokatuta, 6,56ko batez besteko puntuazioa dauka. Lehen esan bezala, biztanleek udalerrian jarduera gutxi daudela diote. Gainera, adinekoentzat egokiak eta



onuragarriak diren ekintza gutxi daude. Beraz, orokorrean, aisialdia hobetu behar den arlo bat dela esan daiteke, batez ere udalerriko adineko pertsonentzat.

Beste aldetik, adinekoen errespetuari dagokionez, topaketetan zein inkestetan, ondo kalifikatu egin da. Goiko grafikan bostgarren lekuan dago, 6,52ko batez bestekoarekin. Belaunaldien arteko harremanak urritu badira ere, adinekoak errespetatzen dira.

Seigarren lekuan, parkeak eta aire zabaleko guneak daude, 6,47ko batez bestekoarekin. Topaketetan, hauek ondo zainduta eta kokatuta daudela esan da, baina irisgarritasun falta degoela adierazi da.

Inkestako emaitzak eta topaketetan emandako informazioa, ez datoz bat goiko grafikan agertzen denarekin. Izan ere, 6,04ko batez bestekoa dauka eta inkestetan zein topaketetan, parte hartzaileek orokorrean etxebizitzaren ezaugarri askorekin ados ez daudela adierazi dute, garestiak direlako eta irisgarritasun falta dutelako, besteak beste. Beraz, etxebizitza aztertu eta hobetu beharreko arlo garrantzitsu bat da, izan ere, biztanleriaren ongizatea baldintza dezake.

Aztertu beharreko beste gai bat giza-partaidetza da. Arlo honen batez bestekoa 5,98koa da. Inkestetan eta topaketetan, biztanle gehinek udalerriko jardueretan parte hartzen ez dutela esan dute. Orokorrean, gizarte-partaidetzako aukera berriak sustatu behar direla esan daikete. Topaketetan belaunaldiarteko jarduera gehiago eskaini behar litzatekeela esan da, biztanle guztien partaidetza sendotzeko.



BIBLIOGRAFIA

- Balcazar, F.E., suarez-Balcazar, Y.& Keys, C.B. (1998). Un modelo de investigación-acción para desarrollar la capacidad de comunidades para incrementar su poder. *Auma Psicológica*, 5, 123-147
- Global Network Age Friendly Cities, Ireland's Age Friendly Counties Programme, The International Federation on Ageing (2011): *The Dublin Declaration. Age Friendly Cities and Communities*. Dublin.
- Gobierno Vasco: EUSKADI LAGUNKOIA: Guía práctica para la implantación y uso en municipios
- OMS (2007): *Ciudades Globales Amigables con los Mayores: Una Guía*. Ginebra.
- QUINTANA, J.M. (coord.) (1986), *Investigación Participativa. Educación de Adultos*, Madrid, Narcea.
- WHO (2002): *Active Ageing: A Policy Framework*. Geneva.
- WHO (2007): *Age Friendly Cities Project Methodology: Vancouver Protocol*. Geneva.



LABURPEN TAULA: ALDERDI POSITIBOAK, ALDERDI NEGATIBOAK ETA PROPOSAMENAK

EREMUA	AZPI-EREMUA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROMOSAMENAK
OROKORRA		<ul style="list-style-type: none"> - Udalerri atsegina izatea - Oro har garbia izatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Garestia izatea - Txakurren ordenantza ez betetzea - Zaborren botatzea ondo ez kudeatzea - Zaratatsua izatea tabernetako ekintzetan eta trafikoaren ondorioz. 	<ul style="list-style-type: none"> - Garbitasuna mantentzea - Errekaren garbiteka egitea - ZABORRAK: <ul style="list-style-type: none"> - Zaborran botatzeko eta ondo birziklatzeko kontainerrak eta garbiguneak jartzea - Zakarrontzi eta kontainer gehiago hartzea, pilena bereziki eta baita tinten kartutxoentzako ere, herritarrak garbigunera joan behar ez izateko - Ibaiaren garbitasunari buruzko kontzientzazio kanpaina: plazan ibain azaldutako zabor guztia jarri beharko litzateke kontenedoretan - Txikleak lurrera ez botatzeko sentsibilizazio kanpaina - Urola erdiko mankomunitateari kontenedore irisgarriak eskatu - Kukuerra-Beidazar baratza ekologikoen inguruan, zabor kontainerrak mantendu. - TXAKUR-KAKAK: <ul style="list-style-type: none"> • Txakurren jabeei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egitea



EREMUA	AZPI-EREMUA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROMOSAMENAK
				<ul style="list-style-type: none"> • Txakurrentzako gunere bereziak jartzea • Ordenantza betearaztea - ZARATA: • Floreagan egiten diren Alai-batza ekintzetan zarata murriztea • Zarataren inguruan proiekturen bat gauzatzea
<p>AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK</p>	<p>PARKEAK, AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKIN PUBLIKOAK</p>	<p>Orokorrean herriko kaleen eta eraikuntza publikoen gaia lantzeko lan talde bat osatzea proposatzen da herrian.</p>		
		<ul style="list-style-type: none"> - Parkeak ondo kokatuta egotea - Eraikin publikoak egokiak eta irisgarriak izatea - Komun publikoak ondo zainduta eta irisgarriak izatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Parke batzuk ondo zainduta ez egotea (Altzibar eta Intxausti) - Leku batzuetan parke falta izatea (PortuEne etea Matadero inguruan) - Zakarrontziak (ibai ondoko paseoan bereziki) eta eserlekuak faltan egotea (Berdura plaza eta Ikastolan) - Ariketa fisikoa egiteko makina gutxi egotea 	<ul style="list-style-type: none"> - Parkeak handitzea eta hobetzea - Komun publikoen kopurua handitzea (Loiolako paseoan eta Zumarragara bidean dagoen bidegorrian) - Zakarrontzi eta eserleku gehiago jartzea - Herrian jolaserako leku gehiago izatea - Adinekoek ariketa fisikoa egiteko elementu gehiago jartzea



EREMUA	AZPI-EREMUA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROMOSAMENAK
	<p>EKIPAMENDU PUBLIKOA</p>			<ul style="list-style-type: none"> - Plaza Balda: udaran eguzkiak asko jotzen du eta bertan itzalik ez dago, eserlekua petril moduan da, eskailerak daude bertara joateko eta plaza bertan ere baldosa handiak daude eta tartetik tartera zulo handiak daude. - Bankuak leku huetan botatzen dira faltan: Trenbidearen Zumardia, Plaza berduran, Xabier Munibe ikastolan bankuak oso zahartuta daude eta erdi puskatuta. Orokorrean, Ikastolan oso banko gutxi daude. Eserleku gehiago itzalarekin adibidez Toki-Alai-tik Santa Cruz-era - Iturriak: metalezkoak berreskuratu. San Juan-en pena da iturburuak izatea eta ez berreskuratzea. - Zakarrontziak: ibai ondoko paseoan falta dira, gasolindegia parean. - Ikastoletako ateak zabalik egon beharko lukete egunero, publikoak dira eta; askotan, futboleko edo saskibaloian jolastera joan eta itxita egoten dira.



EREMUA	AZPI-EREMUA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROMOSAMENAK
				<ul style="list-style-type: none"> - Balda etxea txukundu. - Irtenbidea azkar eman Idiaquez etxeari. - Frontoirik ez dago urik sartzen ez denik euria egitean. - 7 frontoietako itukinak konpondu. - Igerilekua aldatu beharrea dago, ez da tokirik egoten, eta kanpoko igerilekuan 2 kale 25 metrokoak errespetatu igeri egin nahi dutenentzako. - Ibai-Ondo kalean, Jausoro aldera ura galtzen da uneoro, lehen metalezko iturria zegoen lekuan, lehen bezela iturria jarri eta ura errepidera isurtzea ekidin beharko litzateke. - Parrokia aurreko andamioak kendu beharko lirateke - Herri sarrerak txukunagoa beharko luke Lidl inguruan. - Altzibar eta Jausoro artean zubia beharko litzateke bi auzo gerturatzeko. - Munategi-n semaforoak beharko lirateke oinezkoentzat. - Beharrezkoa da semaforo bat Intxausti Palazioaren kruzean.



EREMUA	AZPI-EREMUA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROMOSAMENAK
	GOIKO AUZOETARA MUGIKORTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Irogailuak ondo kokatuta egotea 	<ul style="list-style-type: none"> - Irogailu batzuk zikinak egotea 	<ul style="list-style-type: none"> - Irogailu gehiago jartzea: Atxabaletan, Floreagan eta tanatoriotik San Martinera - Irogailuen garbitasuna mantentzea
	ERAIKIN PUBLIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Eraikin publikoak egokiak eta irisgarriak izatea 		<ul style="list-style-type: none"> - Ate automatiko gehiago jartzea - Osasun zentroko igogailua egokitzea - Ogasunan (Udaletxean) kokka txiki bat dago eta arrapala txiki batzuk jartzea - Ongizate sailean eserleku gehiago
	KALEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Atsedeen hartzeko tokien kopurua egokia izatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Kaleak irisgarriak ez izatea - Klean zulo asko egotea - Espaloiak ondo zainduta ez egotea - Bizikletek, patineteek eta autoek oinezkoen espaloiak ez errespetatzea - Bizikletak eta patineteak abiadura handiz ibiltzea - Ikuspen gutxiko zebra-bideak egotea 	<ul style="list-style-type: none"> - ESPALOIAK: Espaloien egoera orokorra hobetzea eta egokitzea: <ul style="list-style-type: none"> • Nemesio Otañoko igogailura doan espaloia konpontzea • San Martin auzoan espaloiak konpontzea • Plaza Berriko lurzorua eta San Martingo espaloia (kasu hontan igogailutik irteten dena) egokitzea gurrpil-aulkiak igaro ahal izateko • Gasolendegitik jaisten den bidegorria aurreko espaloiarekin ondo lotzea • Gasolindegiko atzeko partean oinezkoentzat bidea jartzea • Beizadar kaleko espaloiko zuloak estaltzea



EREMUA	AZPI-EREMUA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROMOSAMENAK
				<ul style="list-style-type: none"> • Osasun zentro eta haurreskola inguruko espaloiak konpontzea - Kale Nagusian solte dauden baldosak konpontzea - Kaleen irigarritasunari buruz hitz egiteko taldeak sortzea - Bizikletek eta patineteek oinezkoen espaloiak errespetatzeko kanpainak egitea - ZEBRA-BIDEAK: • Zebra-bideen irisgarritasuna, ikusgaitasuna eta argiztapena hobetzea, batez ere osasun zentroko zebra-bidean • Gasolineratik jeisten den bidegorria pareko espaloiarekin egoki lotu. • Zebra-bideetan ikusgaitasuna hobetu, askotan gidariak ezin baitu ikusi oinezkoa badatorren edo ez. - Udaltzaingo gehiago egotea Santa Klara eta matadero ondoan - Plaza Berria berritzearen egutegia eta lanak nola izango diren Udalak publiko egitea.



EREMUA	AZPI-EREMUA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROMOSAMENAK
				<ul style="list-style-type: none"> - Udalari herriko lan gutzietan buruzko informazioa zabaldu dezala eskatzea - Aparkalekuaren arazoa konpontzea autoek espaloietan aparkatzeko beharra izan ez dezaten
	HERRITARREN SEGURTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Eremu ez seguru gutxi egotea 	<ul style="list-style-type: none"> - Argiztapen eskasa izatea herrian eta auzoetan - Udaltzain gutxi egotea - Lapurreta arriskua handia izatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Zebra-bideen argiztapena hobetzea - Futbol zelai atzean argiztapena jartzea - Eliz atarian eta Plaza Berrian argi gehiago jartzea - Matadero inguruan argiztapena jartzea
	Orokorrean mugikortasunaren gaia lantzeko lan talde bat osatzea proposatzen da herrian.			
GARRAIO	AUTOBUSA	<ul style="list-style-type: none"> - Geraleku nahiko izatea - Prezioa egokia izatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Geltoki batzuk markesina ez izatea - Asteburuko eta gaueko autobus zerbitzuaren falta 	<ul style="list-style-type: none"> - Julio Urkijo kaleko autobus geltokia hobetzea - HERRI BARRUKO AUTOBUS ZERBITZUA: <ul style="list-style-type: none"> • Autobusen maiztasunaren eta ibilbideen ikerketa egitea • San Martinera eta Floreagara doazen autobus maiztasuna areagotzea • Osasun zentrorara doazen autobusak areagotzea • Atxabaleta igotzeko autobus gehiago jartzea, baita kanpoko igerilekura ere. • Orokorrean autobus urbanoaren maiztasuna areagotzea.



EREMUA	AZPI-EREMUA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROMOSAMENAK
				<ul style="list-style-type: none"> - HERRITIK KANPORAKO ZERBITZUA: • Autobusa eta trena erabiltzeko txartel bakarra jartzea • Gaueko autobus zerbitzua berreskuratzea • Autobusen irisgarritasuna hobetzea • Bilbo eta Gasteizera joateko autobusa jartzea • Donostiatik Azkoitiara joaten den autobusaren ordutegia luzatzea - Autobus linea berriak jartzea Mutriku, Deba eta Ondarroara joateko eta baita azpeitia-ermua Altzibarretik igaroz.
	AUTOA	<ul style="list-style-type: none"> - Udalerrian erregistratutako trafiko istripuen kopurua txikia izatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Aparkaleku falta - Autoen abiadura - Bizikletek eta patineteek oinezkoen espaloiak ez errespetatzea - Semaforoen iraupena laburra izatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Aparkaleku gehiago jartzea - Ibilgailuek espaloiak errespetatzea - Plaza Verdurasen atzeko espaloian piboteak jartzea autoak sar ez daitezen - Autoen abiadura moteltzea - Udaltzaingoen aparkatzeko araudiak betetzea, espaloietan aparkatuta dauden autoei izunak jartzea eta desgaituen aparkalekuak zelatzea ondo irabiliak izan daitezen



EREMUA	AZPI-EREMUA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROMOSAMENAK
				<ul style="list-style-type: none"> - Kontzientziazio kanpaina bat egitea umeak eskolara oinez joan daitezen eta udaltzainek eskola sartu eta irteeretan legeak bete araztea.
ETXEBIZITZA			<ul style="list-style-type: none"> - Etxebizitzak garestiak izatea - Etxebizitzak eta eraikinak berritzeko edo egokitzeko laguntzen berri ez izatea - Egokitu gabeko etxebizitza ugari egotea - Etxebizitza askotan, komunetan batez ere, egokitasun falta 	<ul style="list-style-type: none"> - Gazteei etxebizitzak erosteko laguntzak ematea - Babes ofizialeko etxeak alokatzeko ere jartzea - Etxebizitzak berritzeko laguntzen informazioa zabaltzea - "Propiedad horizontal" legerari buruzko azterketa bat egitea - Diru publiko gehiago jartzea etxeak berritzeko - Adinekoak bizi diren etxeetan, ezin badute igogailurik jarri edo jartzeko ahalmenik ez badute kasu bakoitza aztertzea.
PARTAIDETZA ETA GIZARTE- SAREA	FAMILIA		<ul style="list-style-type: none"> - Familiarekin harreman handia izatea - Senideak bizilekutik hurbil bizi izatea - Maiz laguntzea elkarri 	



EREMUA	AZPI-EREMUA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROMOSAMENAK
	AUZOKOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Auzokoak dezente ezagutzea - Auzokoen laguntza- eta elkarlan-sare sendoa izatea - Dendariak dezente ezagutzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Denden irisgarritasun falta - Herritarren artean laguntza eskatzeko ohitura galtzea - Bakarrik bizi diren pertsonenganako sentsibilizazio falta 	<ul style="list-style-type: none"> - Bakarrik bizi diren adinekoengana hurbiltzeko sentsibilizazio kanpainak egitea - Banketxeetan irisgarritasuna bermatzea - Establezimendu lagunkoia ekimenari jarraipena ematea - Denden eta tabernen irisgarritasuna hobetzea - Dendetan eserleku gehiago jartzea
	ASIALDIA	<ul style="list-style-type: none"> - Musika jarduerak egotea - Aisialdi ekintzen prezioa egokia izatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Kiroldegia garestia izatea - Irisgarritasun falta kiroldegian 	<ul style="list-style-type: none"> - Kiroldegiko irisgarritasuna hobetzea - Aisialdi ekintzen eskaintza handitzea biztanleria osoaren partaidetza eta integrazioa sustatzeko - Balda plazan kultur ekitaldi gehiago antolatzea: antzerkiak, gaueko zinea, bertsolaritza, dantzak... - Futbola ez diren beste kirolak bultzatzea - Adinekoentzat formakuntza ikastaroak egiteko - Memoria taillerrak berreskuratzea - Ibilbide osasuntsuak proposatzea - Elkarguneko instalazioetan aire egokia jartzea



EREMUA	AZPI-EREMUA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROMOSAMENAK
HERRI- PARTAIDETZA ETA ENPLEGUA	BOLUNTARIOAK ETA ELKARTEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren artean laguntza eskaintzeko joera egotea 	<ul style="list-style-type: none"> - Boluntario jardueretan partaidetza urria - Herri ekintzetan parte hartzeko gogo falta 	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren eta udalerriko elkarten arteko komunikazioa hobetzea - Elkarte hauen beharrak ezagutzea, ez jendea behar duten eta zer ekintza motarako
	ENPLEGUA			<ul style="list-style-type: none"> - Herrian lan egiteko aukera gehiago egotea, trasladoak eskatuz
ERRESPETUA ETA GIZARTERATZEA		<ul style="list-style-type: none"> - Adinekoak errespetuz tratatzea - Familiak eta erakundeek kontuan hartzen dituztela sentitzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Belaunaldien artean harreman gutxi egotea 	<ul style="list-style-type: none"> - Belaunaldiarteko ekintzak
KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA		<ul style="list-style-type: none"> - Orokorrean udalerriko informazioa ondo ezagutzea - Informazioa hedatzeko tresnak izatea (udaletxeko web orrialdea, sare sozialak, Elkarguneko app-a...) 	<ul style="list-style-type: none"> - Interes falta - Internetaren erabileraren inguruko ezjakintasuna - Informazioaren luzeera, askotan iragarkian luzeegiak dira-eta 	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa laburtzea eta sailkatzea - Iragarki taulak maiz garbitzea - Adinekoentzat internetaren erabilirerari buruzko formakuntza - Ordenagailuak erabiltzeko laguntza eskuragarri izatea

EREMUA	AZPI-EREMUA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	PROMOSAMENAK
				<ul style="list-style-type: none"> - Informazio non dagoen erraz eman ezagutzera - Informazio taldeak osatzea - Udalerriko informazioa gazteleraz jartzea, euskeraz ez dakitenentzat
GIZARTE ETA OSASUN ZERBITZUAK		<ul style="list-style-type: none"> - Osasun zerbitzuen kokapena - Telesistentzia zerbitzua 	<ul style="list-style-type: none"> - Asteburuetan osasun zerbitzuak ez egotea - Gaueko eta asteburuko farmazia zerbitzuak ez egotea - Egoitza zentroaren kokapena - Kanpotarren inguruko aurreiritziak 	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Zerbitzuetatik informazio gehiago helaraztea herritarrei dauden zerbitzuei eta eskubudeei buruz. - Egoitza zentroaren kokapena aldatzea, adibidez, udaletxeak duen erakin edo lokal bat egokituz, behean eta zentroan egon dadin - Eguneko egoitza zentro gehiago jartzea eta hauek irisgarriak izatea - Osasun zentroan guardia zerbitzua asteburuetara zabaltzea. - Kanpotarrenaganako zurrumurruak saiesteko kanpainaren bat egitea. - Heriotza zibila ospatzea herrian bermatzea



www.euskadilagunkoia.net

info@eskadilagunkoia.net



MATIA
INSTITUTO

